

# Ekintzailetasunari buruzko I. Jardunaldiak

MARKINA-XEMEIN, 2007-12-13





EKINTZAILETASUNARI BURUZKO

I. JARDUNALDIAK

**MARKINA-XEMEIN, 2007KO ABENDUAK 13**

- Azaro Fundazioa, Lea-Artibai eskualdearen garapenaz konprometiturik -

**EKINTZAILETASUNARI BURUZKO I. JARDUNALDIAK**

MARKINA-XEMEIN, 2007KO ABENDUAK 13

- *Azaro Fundazioa, Lea-Artibai eskualdearen garapenaz konprometiturik* -


AZARO FUNDAZIOA

2008ko martxo

[www.azarofundazioa.com](http://www.azarofundazioa.com)

Kazetaritza-Maketazioa-Diseinua: 11 BARRI





<b>HITZAURREA</b> .....	12
-------------------------	----

## **TXOSTENAK**

### **SUSTAPEN KULTURA**

Deusto Fundazioa – iNNOVaNDiS programa PAUL SAN SEBASTIÁN .....	020
--	-----

### **EKINTZAILETASUN PROFILA**

Labein - Team Academy Euskadi JAVIER RUIZ ETA AITOR GISASOLA ....	032
--	-----

### **LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA ENPRESA BERRITZAI-LEEN SORRERARAKO BALDINTZAK BERMATZEKO INGURU BATEAN**

Ecole des Mines d'Ales (EMA), (Frantzia) ALAIN DORISON .....	044
---	-----

Fundació Eduard Soler, Centre d'Iniciatives Empresariales del Metall (Ripoll - Girona - Catalunya) XABIER MAS .....	056
---	-----

## **PONENCIAS**

### **CULTURA ENPRENDEDORA**

Fundación Deusto - Programa iNNOVaNDiS PAUL SAN SEBASTIAN .....	025
--	-----

### **PERFIL EMPRENDEDOR**

Labein - Team Academy Euskadi JAVIER RUIZ Y AITOR GISASOLA .....	037
---	-----

### **COLABORACION PÚBLICO-PRIVADA PARA GARANTIZAR UN ENTORNO PROPICIO PARA LA CREACION DE NUEVAS EMPRESAS**

Ecole des Mines d'Ales (Francia) ALAIN DORISON .....	049
---	-----

Fundació Eduard Soler, Centre d'Iniciatives Empresariales del Metall (Ripoll - Girona - Catalunya) XABIER MAS .....	060
---	-----

## **LANKIDETZA PUBLIKO-PRI- BATUA ENPRESA BERRITZAI- LEEN SORRERARAKO BAL- DINTZAK BERMATZEKO INGURU BATEAN**

Azaro Fundazioa – Esperanza 2013 proiektua.  
'Lea-Artibai eskualdearen  
garapenaz konprometiturik'

AINARA BASURKO ..... 066

## **COLABORACION PÚBLICO- PRIVADA QUE GARANTICE UN ENTORNO ADECUADO PARA LA CREACION DE NUE- VAS EMPRESAS**

Azaro Fundazioa - Proyecto Esperanza 2013.  
'Comprometidos con el  
desarrollo de la comarca de Lea-Artibai'

AINARA BASURKO ..... 072

## **ENPRESA PROIEKTU BERRI- TZAILE, JASANGARRI ETA KONPETITIBOAK BULTZA- TZEKO BEHAR DIREN BALIA- BIDEEN MAPA BERRIA**

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta  
Ekonomia Sustapen Saila

JOSE RAMON IPIÑAZAR

[ Saileko Enpresa

Sustapeneko zerbitziburua ] ..... 080

## **MAPA DE RECURSOS PARA LA PROMOCION DE PROYECTOS INNOVADORES, SOSTENI- BLES Y COMPETITIVOS**

Departamento de Innovación y Promoción  
Económica de la Diputación Foral de Bizkaia

JOSE RAMON IPIÑAZAR

[ Jefe del Servicio de

Promoción Empresarial ] ..... 084

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta  
Ekonomia Sustapen Saila

OLATZ GOITIA

[ BEAZ, Europar Enpresa eta Berrikuntza  
Zentroa Bizkaian ] ..... 090

Departamento de Innovación y Promoción  
Económica de la Diputación Foral de Bizkaia

OLATZ GOITIA

[ BEAZ, Centro Europeo de Empresas e  
Innovación en Bizkaia ] ..... 092

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta  
Ekonomia Sustapen Saila

JOSE IGNACIO ROJO

[ CEDEMI, Europar Enpresa eta Berrikuntza  
Zentroa Nerbioi Ezkerraldean ] ..... 096

Departamento de Innovación y Promoción  
Económica de la Diputación Foral de Bizkaia

JOSE IGNACIO ROJO

[CEDEMI, Centro de Desarrollo Empresarial de  
la Margen Izquierda] ..... 098



Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta  
Ekonomia Sustapen Saila

IDURRE ARZUAGA

[ Seed Capital Bizkaia, Bizkaiko arrisku kapita-  
lerako sozietatea ] ..... 102

Departamento de Innovación y Promoción  
Económica de la Diputación Foral de Bizkaia

IDURRE ARZUAGA

[ Seed Capital Bizkaia, sociedad de capital ries-  
go en Bizkaia ] ..... 105

## **EZBERDINTZE ESTRATEGIA- REN MUINA: BERRIKUNTZA BARNE-EKINTZAILETASUNE- RAKO FORMULA EZBERDINAK**

Azaro Fundazioa

LEIRE ARRIZABALAGA ETA

AINARA BASURKO ..... 110

## **ESTRATEGIA DE DIFEREN- CIACION: ESTRATEGIA COM- PETITIVA BASICA. DIVERSAS FORMULAS DE INTRA- EMPREDIZAJE**

Azaro Fundazioa

LEIRE ARRIZABALAGA Y

AINARA BASURKO ..... 118

## ELKARRIZKETAK

## ENTREVISTAS

JAVIER RUIZ (Bilbao, 1958)

AITOR GISASOLA (Elgoibar, 1983)

**Labein – Team Academy Euskadi** ..... 130

PAUL SAN SEBASTIAN (Donostia, 1971)

**Fundación Deusto – Programa INNOVaNDiS** ..... 134

ALAIN DORISON

**L’Ecole de Mines d’Ales** ..... 138

XABIER MAS (Ripoll, 1951)

**Centre d’Iniciatives Empresariales dels Metalls – Fundació Eduard Soler**  
..... 142

IDURRE ARZUAGA

**Seed Capital Bizkaia sozietatea**

JOSÉ RAMÓN IPIÑAZAR

**Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila** ..... 146

AINARA BASURKO (Ondarroa, 1972)

**Azaro Fundazioa** ..... 150



# EKINTZAILETASUNARI BURUZKO I. JARDUNALDIAK

## MARKINA-XEMEIN, 2007KO ABENDUAK 13

- Azaro Fundazioa, Lea-Artibai eskualdearen garapenaz konprometiturik -

### 1. SARRERA

Azaro Fundazioa bere inguruaren garapenarekin konprometituriko erakundea da. Honela definitzen du bere misioa: "Inguruko enpresa sarearen garapen teknologikoa eta lehiakortasunaren hobekuntza bidelagun izan -Lea Artibai Ikastetxeko ezagutza guneekin erlazionaturiko sektoreetan lehentasunez- garapen propioaren bidez edo ezagutza berriak eskuratuz. Honekin batera, profesional gaituak prestatzea izango da erronka, hauen izaera ekintzailean eraginez batez ere, proiektu honen azken xedea oinarri teknologikoa eta/edo izaera berritzailea -eta ahal den neurrian kooperatiboa- duten enpresa berriak/jarduera berriak sortzea bait da. Alegia, proiektu hau Lea Artibaiko enpresa ehuna sendotzera eta oro har eskualdea lehiakorrago egitera bideratuta dago".

Proiektu hau, ESPERANZA 2013 bezala ezagutzen den proiektu hau lau "hanka" edo lau eremu nagusitan egituratzen dela esan daiteke.



· Sustapen/Ekintzailetasun Baloreen hedapena: Bai inguruko ikastetxeetan, enpresetan eta oro har gizartean ekintzailetasun eta sustapen baloreak hedatzeko egitasmoak gauzatzea du helburu Azaro Fundazioak



· Teknologia: Lea Artibai Ikastetxeko ikerkuntza enpresa ideia berrien topaketa eta definiziora orientatzea da helburua eta halaber, inguruko enpresei dibertsifikazio helburuen garapenean laguntzea.



· Prestakuntza: Sustatzaileen formaziorako ekimenak garatzen dira lan eremu honen baitan: Ikastaro motz eta luzeak, sustatzaileengan profil egokia landu eta abilezia eta ezagupen garrantzitsuak eskuratzeko.



· Zerbitzu integrala: Lan eremu honen baitan Azaro Fundazioak zerbitzu integrala eskaintzen die enpresa ideia bat garatu nahi duten sustatzaileei. Alegia, enpresa ideien bilaketa fasetik abiatuz, bideragarritasun azterketaren prozesuan lagundu ezezik, enpresa berriaren kontsolidazio faseraino hedatzen da zerbitzu eskaintza.

Lan marko honetan, 2007ko Abenduaren 13an Ekintzailetasunaren inguruko Jardunaldiak egin dira Markina Xemeinen. **Azaro Fundazioak antolaturiko ekimen honen helburua, sustapen/ekintzailetasun "giroa" sustatzeko baldintzetan eragitea** izan da. Jarraian azaltzen dira jardunaldiaren ezaugarri nagusiak.

## 2. HELBURUAK ETA PUBLIKO OBJETIBOA

Jardunaldi hauek sustapen/ekintzailetasun prozesuetan zeregina duten arduradun, irakasle eta teknikariei zuzendurik egon dira, esperientzia eraginkorren inguruan hausnarketa egin dezaten eta batez ere euren errealtateetara aplikagarri izan daitezkeen irakatsiak eskuratu eta kontaktuak egiteko. Bertan parte hartu dutenen artean mahai ingurua edo eztabaida sortzea ere izan da jardunaldien helburua.

Konkretuki, honela laburbildu daitezke jardunaldi honen **helburuak**:

- Agente ezberdinek euren inguruko agente ezberdinekin elkarlanean garatu dituzten ekintzailetasun/sustapen esperientzien aurkezpena egitea. Zentzu honetan, ekintzailetasuna sustatzeko "inguru egokia" sortzearen garrantzia azpimarratu da eta horretarako tokian tokiko erakunde ezberdinen arteko lankidetzeta eta osagarritasunak duen estrategikotasuna.
- Entzundako ponentzietatik sustapen/ekintzailetasun prozesuen arrakastan eragiten duten faktoreak identifikatzea.
- Sustapen/Ekintzailetasun egitasmoak koordinatzen diharduten pertsona eta erakunde ezberdinen arteko elkarlana sustatzea.

Esan bezala, **publiko objetiboa** honako eragile hauek osatu dute:

- Sustapenaren hedapenean eta enpresen sorkuntzan diharduten edo abiatu nahian dabiltzan ikastetxeak, unibertsitateak eta bestelako formazio egiturak.
- Sustapena eta enpresen sorrera euren jarduera duten garapen agentzia eta bestelako egiturak.
- Udalak eta mankomunitateak.
- Eskualdez gaindiko erakundeak: Aldundia, Jaurlaritza,...eta bestelako erakundeak.
- Inguruko enpresak.
- Inguruko ikasleak.
- Inguruko ekintzaileak.
- ....

## 3. JARDUNALDIAREN EGITURA

### 3.1. Edukiak

Ekintzailetasunaz jarduteko orduan, 5 ataletan egituratu da jardunaldia eta beraz, baita txosten hau ere:

#### I. Sustapen Kultura

- a. Zergatik da garrantzitsua sustapen kultura hedatzea?
- b. Zeintzuk dira kultura ekintzailea ezaugarritzen duten balore eta jarrerak?
- c. Nola sustatu jarrera hauek?
- d. Nola landu gaia publiko objetibo ezberdinen ezaugarriak kontutan hartuz?
- e. Nola lotu sustapen kulturaren hedapena, enpresa berrien sorrerarekin?
- f. ...

## **II. Ekintzailetasun profila**

- a. Ekintzailea gaur eguneko lan merkatuan eta inguru konpetitiboan
- b. Zein da egungo ekintzailearen profila? Zeintzuk dira bere ezaugarriak?
- c. Profil hau landu daiteke? Nola landu ekintzailetasun profila?
- d. Gestore on bat nola bilakatu ekintzaile. Ekintzailetasun profilean antze man daitezkeen gabeziak osatu daitezke? Nola?
- e. ....

## **III. Lankidetzak publiko pribatua enpresa berritzaileen sorrerarako baldintzak bermatzeko inguru batean**

- a. Ekintzailetasuna eta enpresa berrien sorrera sustatzeko "habitat" egoki bat antolatzearen garrantzia.
- b. Enpresen sorreran inplikaturata egon daitezkeen eragile ezberdinen ikus puntu bateratuaren garrantzia.
- c. Erakundeen arteko osagarritasuna bermatzeko egitura edo lan dinamikak.
- d. Elkarlana, sinergiak, osagarritasuna...."modan" dauden hitzak baino askoz ere gehiago: lurralde baten garapenerako giltza.
- e. Koordinazio minimoak enpresa sustapenerako: tokiko administrazioa, eskaintza formatiboa, ikerkuntza jarduera eta enpresa sarearen errealitatea.
- f. Sustapen prozesuaren lidergoa duten erakundeen oinarrizko abilezia: sare lana.
- g. ...

## **IV. Enpresa proiektu berritzaile, jasangarri eta konpetitiboak bultzatzeko behar diren baliabideen mapa berria**

- a. Dirulaguntza berriak enpresa/jarduera berriak bultzatzeko.
- b. Kapitala lortzeko aukera berriak: Arrisku kapitalak, elkarrekiko bermebaltzuak, inbertsore pribatuak, business-angels....
- c. ...

## **V. Barne ekintzailetasuna**

- a. Enpresa, jarduera ekonomiko berritzaileak eta balio erantsidunak sustatzeko gunegokia.
- b. Ekintzaile korporatiboaren figura.
- c. Enpresetan dibertsifikazio prozesuak (dibertsifikazio sinergikoa eta ez sinergikoa): ingurunearekiko konpromisoa eta/ala beharrezana?
- d. Esperientzia zehatzak.
- e. ...

### 3.2. Hizlariak

Jardunaldiaren antolatzaileak Azaro Fundazioko teknikariak izan dira. Hizlariei dago-kionez, honako hauek izan dira:

- **Sustapen Kultura eta Sustatzaile Profila**
  - Javier Ruiz eta Aitor Gisasola, Labein (Team Academy Euskadi).
  - Paul San Sebastian, Deusto Fundazioa (Innovandis programa).
  
- **Lankidetzak publiko pribatua enpresa berritzaileen sorrerarako baldintzak bermatzeko inguru batean**
  - Ainara Basurko , Azaro Fundazioa (Esperanza 2013 proiektua)
  - Alain Dorison, Ecole des Mines d'Ales.
  - Xavier Mas, Fundació Eduard Soler, Escola del Treball del Ripollés.
  
- **Enpresa proiektu berritzaile, jasangarri eta konpetitiboak bultzatzeko behar diren baliabideen mapa berria**
  - Idurre Arzuaga (SEED CAPITAL BIZKAIA).
  - Olatz Goitia (BEAZ-Europar Enpresa eta Berrikuntza Zentroa Bizkaian).
  - José Ramón Ipiñazar (Bizkaiko Foru Aldundiko berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saileko Enpresa Sustapeneko zerbitziburua).
  - José Ignacio Rojo (CEDEMI, Europear Enpresa eta Berrikuntza Zentroa Nerbioi Ezkerraldean).
  
- **Barne ekintzailetasuna**
  - Leire Arrizabalaga, Azaro Fundazioa (esperientzia ezberdinen aurkezpena).

Txosten hau hizlari hauen aurkezpenetan eta eurei egindako elkarrizketetan oinarritu da. Aipatu agenteentzat erreferentzia baliagarria, ideia iturri eta lanerako tresna izatea du helburu.

Eskerrak eman nahi dizkiogu 11 Barri Komunikazio enpresari egindako lanagatik txosten honen definizio eta prestaketan.

TXOSTENAK  
PONENCIAS







## SUSTAPEN KULTURA

**Deusto Fundazioa – iNNoVaNDiS programa**  
*PAUL SAN SEBASTIAN*

## CULTURA EMPRENDEDORA

**Fundación Deusto - Programa iNNoVaNDiS**  
*PAUL SAN SEBASTIAN*



# SUSTAPEN KULTURA

## Deusto Fundazioa – iNNoVaNDiS programa

PAUL SAN SEBASTIAN

Duela hiru urte Deustuko Unibertsitateak sorturiko Deusto Fundazioak erronka bezala definitzen du iNNoVaNDiS programa. Helburu nagusia, erosotasunean ohituta dauden gazte ikasleengan honako baloreak sustatzean datza:

- ekintzailetasuna
- aldaketa kultura
- berrikuntza kultura

### 1. Nortzuk gara

Nortzuk garen definitzeko hitzaurre modura honako ideia planteatu nahiko nuke: Beti gauza bera eginez emaitza desberdinak espero izatea erokeria da. Pertsona berak, formazio berarekin, ideia berdinekin, formazio programa berdintsuak sortzen... Beharrezkoa da norbera birsortzea, etengabe berri-  
tzea.

#### 1.1. Deusto Gunea

Irakaskuntzarako egitura eta Ikerketarako egitura daude Deusto Gunearen barruan.

Batetik Deustuko Unibertsitatea, eta bere barnean fakultateak, institutuak, eskolak eta katedrak. Bertan oinarrizko ikerketa lantzen da.

Bestetik, Deusto Fundazioa dago, duela hiru urtetik hona, hiru piezaz osaturik: ISFD (Instituto Sociológico Fundación Deusto), IVC (Instituto Vasco de Competitividad), eta Tecnológico Fundación Deusto. Guztien artean erosten dute aurrera iNNoVaNDiS programa. Enpresekin hitzartutako ikerketa da euren eremua, eta ikerketa lehiakorra Deustuko Unibertsitateko egiturekin lankidetzan.

#### 1.2. Deusto Fundazioa

Unibertsitatearen egituraren osagarri modura sortu zen Fundazioa, batik bat enpresek dituzten ikerketa beharrezanean erantzun azkarrak eta eragin-  
korrek emateko. Ikerketa aplikatua lantzen da bertatik, eta horrekin batera, jakintzaren transferentzia eta difusioa dira bere egitekoak. Beraz, etengabeko loturan dauden hiru zeregin dinamiko biltzen ditu: ikerketa proiektuen SUSTA-  
PENA, jakintzaren TRANSFERENTZIA eta emaitzen DIFUSIOA.

### 2. Gure erronka

Aldatzen doan inguruari, erantzun berriak ematea da gure erronka nagusia. Adibide bat oso grafikoa izan daiteke aldaketen dinamikak eragin dezakeena ikusteko. Esate baterako, nork esango zukeen orain dela hogeitau urte Bilbao industria hiri izatetik zerbitzu eta turismo hiri izatera igaroko zenik?

Orduko hiriaren argazkiak eta gaur egungoak ikusi eta aldaketaren paradigma bat izango dugu begien aurrean. 2005ean lehenengo bider Bizkaiak hartu zuen turista kopurua Gipuzkoak hartu zuenaren gainetik egon zen.

## 2.1. Nola lehiatu gaur egun?

Lehen, merkatuan zegoen eskaria, eskaintza baino handiagoa zen. Beraz, lehen erosi egiten ziguten. Orain, berriz, mundu mailako merkatu zabalean, eskaintza handiagoa da eskaria baino, eta derrigorrezkoa zaigu saltzera irte-tea.

Lehiakortasunaren oinarrian produktibitate gaitasuna dago. Produktu edo zerbitzu baten balio erantsia eta daukan kostea zatituta kalkulatzeko da gaitasun hori. Baina, orain arte, batik bat kosteen efizientzia hobetzen jarri ditugu esfortzu guztiak. Hori, baina, gaur egun ez da nahikoa.

Gure kosteen arabera eros diezaguten nahi badugu, eta hori bada gure estrategia lehiatzeko, estrategia mugatua da. Izan ere, munduko beste toki askotan lan esku merkea ugaria da. Adibide bat: Txinako lan kosteak Malaysiakoen herena dira, eta AEBetakoak baino hogeit hamar bider baxuagoak.

Ordea, lehiatzeko strategiaren muina diferentziazioan jartzen badugu, aukera mugagabeak irekiko ditugu: eskaintzen dugunaren balio erantsia zenbat eta handiagoa izan, produktibitatea areagotu egingo dugu.

Gure eskaintza berezia edo bakana, benetakoa eta desberdina bihurtzen asmatu, horixe da gaur egun lehiatzeko klabea. Berrikuntzatik datorren balio erantsian datza lehiakortasunerako giltza. Beraz, ikuspuntua aldatu beharra dago: iada ez da nahikoa bat gehiago izatea, berritu beharra dago.

## 2.2. Ekintzailetasun berritzailea sustatzea

Testuinguru sozioekonomikoak eskatzen duena da: inizatiba eta berrikuntza bat eginik. Honek Unibertsitateari bi erronka planteatzen dizkio: Izpiritu ekintzaile-berritzailea zelan sustatu gaur egungo enpresa zuzendaritzengan? Eta zelan etorkizuneko zuzendaritzengan?

Deusto Fundazioak iNNOVaNDiS programaren bidez bigarren atalarengan ipin-tzen du ahalegina: Etorkizuneko enpresa-zuzendariak ekintzaile eta berritzaile izatea da gure erronka. Beraz, gure epe luzerako inbertsioa dela esan daiteke.

Baina, zelan sustatu izpiritu ekintzaile eta berritzailea gaur egun? Javier Elzo soziologoak 2007an eginiko ikerketan dioten bezala, oparotasun eta erosotasun garaiotan ikasle gazteen galdera ez da ia lanik ba ote dagoen, ez bada eze, ia ze kalitateko lana den. Gero eta formazio hobea dute Unibertsitateko ikasleek, baina ekintzailetasunerako bultzada gutxi. Hala eta ere, enpresetara lanera doazenean ere berrasmatzeko gaitasuna eduki beharko dute gazteok, enpresek gero eta gehiago horixe demandatzen baitute: talentoa.

Aldaketa hori eragiteko, baina, Unibertsitateak berak ere bere burua berrasmatu beharra dauka. Gainera, Unibertsitateak berak bakarrik ezin du hori egin: Administrazioarekiko eta enpresekiko lankidetzan egin beharra dago.

### 3. Gure erantzuna gaur egun

Etorkizuneko enpresa zuzendariengan kultura ekintzaile eta berritzailea sustatzeko gure tresna iNNOVaNDiS programa da. Baina errealitateetik abiatzen gara: gaur egun Unibertsitateko ikasketak amaitutakoan enpresa ideia bat bultzatzeko prest daudenen portzentaia oso baxua da. Hori kontuan harturik, ekintzailetasunaren birusa ikasketak egin bitartean ernaltzea da gure ahalegina. Eta helburua, berriz, ikasketak bukatu ostean ere birus horren eraginak jarraitzea, iNNOVaNDiS programa, bene-benetan, karrera bukatu eta gero baitator gure ustez.

Oraintxe ari gara programa osoa egin dutenen lehen belaunaldia sortzen. Deustuko Unibertsitateko ikasketa desberdinetako gazteekin 4. mailan hasten da lantzen programa. Ez da, ordea, nahi duten ikasleek izena emateko programa bat. Ikasle guzti-guztiak ezin dira izan ekintzaile. Programa honek tratu pertsonalean dauka oinarri sakona, eta ikasleen hautaketa prozesu bat erosten da taldeak eratzeko, Unibertsitateko irakasleen eta programako prestatzailleen artean burutzen dena.

Elkarlana da programaren funtsa: Unibertsitatea-Enpresak-Administrazioa. iNNOVaNDiS programan lankidetzan dihardute honako erakundeek Eusko Jaurilaritza, Spri, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bankinter Berrikuntza Fundazioa, Ibermatica eta Bic Berrilan. Elkarlan esparru hori zabaltzen jarraitzeko asmoa dauka Deusto Fundazioak.

#### 3.1. iNNOVaNDiS programaren ezaugarri batzuk

- BORONDATEZKOA da eta ohiko lanari gehitzen zaio; hau da, programan parte hartzeak ez du krediturik ematen.
- DIZIPLINARTEKOA da, Unibertsitateko zentro desberdinen artekoa: Giza Zientziak, Ekonomia, Turismoa.
- PERTSONAREN JARRERAN oinarritzen da. Estilo ko-sortzailea lantzen da: hartu eta eman, ez bakarrik hartu.
- EKINTZAILE IZAERAK honako ezaugarriak biltzen ditu guretzat: konpromisoa, enpatia, lankidetzeta eta berrikuntza.

#### 3.2. iNNOVaNDiS programaren egutegia

- 4. mailaren hasieran egiten da orientazio pertsonalerako lehen tailerra. Azarotik martxora bitartean berrikuntza mintegia lantzen da, eta ekaineko azterketen ondoren, udako bi hilabeteetan lehen praktikak egiten dituzte ikasleek enpresetan. Gaur egun 25 ikasle daude programaren hasierako talde honetan.
- 5. mailaren hasieran bigarren tailerra lantzen dute: sormen tailerra. Ondoren, abenduko azterketak bitarte, ideien sorkuntzan dihardute (enpresa sorkuntzara edo ikerketara bideratuta). Urte horretan Erasmus programa sartzen da urtariletik ekainera. Udaran, berriro ere, praktikak egiten dituzte enpresetan. 20 pertsona daude programaren bigarren urteko taldean.
- Espezialitatea edo masterra egiten ari diren 6. urtean, aurre-proiektua prestatzen dute irailetik abendura bitarte (enpresa sorkuntza edo ikerketara bideratuta). Hirugarren urteko taldean 22 pertsona daude.

- Unibertsitateko ikasketa formalak amaituta ere, ikasle ohiek iNNoVaNDiS Klubean jarraitzen dute, jarraipen ekintzekin.

### 3.3. iNNoVaNDiS programaren tresnak

- FORMAZIO ekintzak: Eginez ikastea filosofia modura hartuta egiten dira.

- I. Tailerra: Orientazio Pertsonala.

- Berrikuntza mintegia.

- II. Tailerra: Sormena.

- PRAKTIKARAKO ekintzak: Bi praktika aldi egiten dira, bi udatan. Mundu osoan egiten dira praktikak, Bankinter erakundean eta berari loturiko enpresa sarean eta Ibermaticaren sarean.

- PROIEKTU ekintzak:

- I. Proiektua: Ideien Sorkuntza.

- II. Proiektua: Aurreproiektua, enpresa baten sorrerarako, edo berrikuntzarako, edo ikerketarako.

- JARRAIPEN ekintzak: iNNoVaNDiS Club Alumni.

### 3.4. iNNoVaNDiS programa 2007an

- FORMAZIO atalean 2007ko urrian asteburu batez sormen esperientzia egin zen Getarian: ostiral arratsaldetik igande arratsaldera proiektua garatu behar zuten bertan. Funky Projects komunikazio enpresak gidatuta egin zen, jarraipenerako proiektu batekin: Euskal Herrian berritzaileak al gara?; proiektuaren wikia egin zen.

- PRAKTIKAK. 2007ko udan Donostiako Ibermatican programako bost ikaslek jardun dute; Madrilgo Bankinterren beste bostek; Erresuma Batuko Capital One-n bi lagunek; Berlingo Nokian beste bik; Indiako N. Piramal-en bik; Taiwango GTRM-n bik; Israelgo Technion enpresan batek; Madrilgo FON-en bik eta Bilboko IDOM-en batek.

- PROIEKTUAK. Lehen belaunaldiko taldekoek 9 proiektu berritzaile landu dituzte: 8 enpresa berriak sortzeko, eta beste bat praktiketako enpresa baterako berrikuntza proiektua da.

- JARRAIPENA. iNNoVaNDiS beti dago atea zabalik programako partaideekin lanean jarraitzeko ikasketak amaitu ostean.

## 4. Gure erantzuna etorkizunean

iNNoVaNDiS programaren orain arteko lehen fasean kultura ekintzaile eta berritzailearen sustapenean dihardugu. Bigarren fasean, horrez gain, Deustuko Unibertsitateko ekintzaile-berritzaileentzako eko-sistema sortzea da gure erronka handia. Bertan, ikasle-ekintzaile horiek euren enpresa-ekimen berriak eta berritzaileak sor ditzaten osagai guztiak egotea da helburua.

2009ko irailerako eraikin berria prest egongo da eko-sistema ekintzaileari zuzenduta. Bertan bilduko dira: iNNoVaNDiS programatik datozen unibertsitateko ikasle ekintzaileak; Club Alumni-ko zuzendari ekintzaileak (ikasle ohiak),

eta prototipoekin datozen ikertzaileak. Horien guztien inguruko orbitan, berriz, kokatuko dira:

- Enpresak.
- Ekintzaile sareak.
- Venture Capital erakundeak (arrisku kapitala).
- Gaien arabeko jakintsuak.
- Business Angels edo negozioen mecenasa-ak.
- Zuzendari ekintzaileentzako etengabeko formakuntza.
- Eta abar...

## 5. Galderen txandan ateratako ondorioak eta ideia nagusiak

· Balio ekonomiko hutsetatik askoz harantzago doazen enpresak muntatzea ere posible dela ikustarazi nahi dugu programa honetan. Gazteok **baloreak** lantzea da lehentasuna: euren jarrera landu, hausnarketa eragin euren bizitzaz, euren bizitzen zuzendari eta bizitzako arlo guztietan ekintzaile izatea lortzea da helburua.

· Programarako ikasleen **hautaketa prozesuari buruz** esan behar da ikasleen ilara egoten dela parte hartu nahian. Lehenengo urtean 180 ikasletik 86k nahi izan zuten parte hartu. Gerora, berriz, ahoz-ahoz doa programari buruzko publizitatea. Batik bat tratu pertsonalizatua eta praktikak egiteko aukera oso onak dira ikasleek gehien baloratzen dituztenak. Gaitzena aukeraketa ondo egitea da. Hori lortzeko aintzat hartzen diren elementuak honakoak dira: coach edo prestatzailearen iritzia + elkarrizketa pertsonalak + ikasleak egindako interes gutuna + curriculum. Nota akademiko hutsak ez ditugu begiratu ere egiten; beste gauza batzuk bilatzen ditugu: ia mugituak diren, ia bul-tzada eta iniziatiba duten...



# CULTURA ENPRENDEDORA

**Fundación Deusto - Programa iNNoVaNDiS**

PAUL SAN SEBASTIAN

La Fundación Deusto, nacida hace tres años desde la Universidad de Deusto, define el programa iNNoVaNDiS como un reto. Su objetivo principal reside en promover ciertos valores en la juventud, acostumbradazs a la comodidad. Valores tales como:

- emprendizaje
- cambio cultural
- cultura innovadora

## 1.- Quiénes somos

Para definir quiénes somos, plantearía como prólogo la siguiente idea: Esperar resultados diferentes haciendo lo mismo de siempre, es una locura. Las mismas personas, con la misma formación, mismas ideas, generando programas formativos similares... Es necesario reinventarse, innovar constantemente.

### 1.1. Entorno Deusto

El Entorno Deusto lo conforman una estructura docente y una estructura investigadora.

Por un lado tenemos la Universidad de Deusto y sus facultades, institutos, escuelas y cátedras. Allí se trabaja en investigación básica. Por otro lado está la Fundación Deusto, desde hace tres años, constituida por tres piezas: ISFD (Instituto Sociológico Fundación Deusto), IVC (Instituto Vasco de Competitividad) y el Tecnológico Fundación Deusto. Todos ellos llevan adelante el programa iNNoVaNDiS. Su área de trabajo es la investigación concertada con las empresas, y la investigación competitiva, en colaboración con las estructuras de la Universidad de Deusto.

### 1.2. Fundación Deusto

La fundación nació como estructura complementaria a la universidad, sobre todo para dar respuestas rápidas y eficaces a las necesidades investigadoras planteadas por las empresas. Desde allí se trabaja la investigación aplicada, y junto con ello, la transferencia de conocimiento y la difusión de resultados. Por lo tanto, aúna tres tareas de manera dinámica y en constante conexión: IMPULSAR proyectos de investigación, TRANSFERIR conocimiento y DIFUNDIR resultados.

## 2. Nuestro reto

Nuestro mayor reto es dar una nueva respuesta a un entorno diferente. He aquí un ejemplo gráfico de lo que puede originar una dinámica de cambio: por ejemplo, ¿alguien hubiera dicho hace 20 años que Bilbao pasaría de

ser una ciudad industrial a ser una ciudad de servicios y turismo? Observar fotografías del Bilbao de hace 20 años y ver las de hoy en día constituye el paradigma del cambio. En 2005, por primera vez, Bilbao tomó la delantera a Gipuzkoa en cuanto a número de visitas turísticas recibidas.

### **2.1. ¿Cómo se compite hoy en día?**

Antes, la demanda del mercado era superior a la oferta. Por lo tanto, antes nos compraban. Pero, ahora, en el amplio mercado global, la oferta supera con creces a la demanda, y estamos obligados a salir a vender.

La base de la competitividad es la capacidad productiva. Dicha capacidad se calcula dividiendo el valor añadido de un producto o servicio entre su coste. Pero, si hasta ahora los esfuerzos iban dirigidos a mejorar la eficiencia de costes, hoy en día ya no basta con eso.

Si queremos que nos compren en base a nuestros costes, y si ésta es nuestra estrategia competitiva, se trata de una estrategia limitada. En muchos lugares del mundo abunda la mano de obra barata. Un ejemplo: los costes productivos en China están un tercio por debajo de los de Malaysia, y veinte veces más baratos que en Estados Unidos de Norteamérica.

Sin embargo, si enfocamos la estrategia competitiva hacia la diferenciación, abriremos innumerables oportunidades: cuanto mayor sea el valor añadido de lo que ofrecemos, mayor será nuestro índice de productividad.

La clave para competir hoy en día está en hacer una oferta singular, auténtica y diferente. El valor añadido dado por la innovación es esa llave para la competitividad. Por lo tanto, es necesario cambiar de perspectiva: ya no basta con ser uno más, hay que innovar.

### **2.2. Fomentar el emprendizaje innovador**

Vivimos en un entorno socioeconómico que exige iniciativa innovadora. Ello plantea dos retos para la Universidad: cómo fomentar el espíritu innovador y emprendedor entre los actuales directivos de empresa; y cómo hacerlo entre los directivos del futuro.

La Fundación Deusto, a través del programa iNNOVaNDiS, pone su esfuerzo sobre ese segundo reto: buscamos que las personas con cargos de dirección del futuro sean emprendedoras e innovadoras. Por lo tanto, la nuestra es una inversión a largo plazo.

Pero, ¿cómo infundir el espíritu emprendedor hoy en día?. Un estudio realizado por el sociólogo Javier Elzo en 2007 afirma: la pregunta de los estudiantes en estos tiempos de abundancia y comodidad no es acerca de si van a encontrar un empleo, sino acerca de la calidad de dicho empleo. Los estudiantes universitarios cada vez cuentan con una mejor formación, pero tienen muy poco empuje emprendedor. Sin embargo, dichos jóvenes deberán contar con capacidad de reinventar cuando entren a trabajar en las empresas, pues éstas demandan cada vez más ese factor: el talento.

Para originar ese cambio cultural, empero, la Universidad debe reinventarse a sí misma. Además, dicho cambio no es labor que deba abordarse unilateralmente: se debe hacer en colaboración con la administración y las empresas.

### 3. Nuestra respuesta hoy

El programa iNNoVaNDiS es nuestro instrumento para fomentar la cultura emprendedora e innovadora entre los cuadros directivos del futuro. Pero, partimos desde una realidad: hoy en día es muy bajo el porcentaje de estudiantes licenciados que están dispuestos a poner en marcha un proyecto empresarial al terminar la carrera. Teniendo en cuenta ese factor, nuestra intención es contagiarlos del virus del emprendizaje mientras realizan sus estudios. Y nuestro objetivo final es que dicho virus siga teniendo su efecto una vez acabados los estudios; pues, en nuestra opinión, el programa iNNoVaNDiS comienza, de verdad, tras terminar la carrera.

Ahora está saliendo la primera generación de personas que han realizado el programa íntegro. Se empieza con estudiantes de 4. curso de diversas especialidades de la Universidad de Deusto. No es, sin embargo, un programa abierto donde cualquiera da su nombre. No todos los estudiantes pueden ser emprendedores. Este programa se centra mucho en el trato personal, y se lleva a cabo un proceso de selección para formar los grupos, el cual lo realizan conjuntamente profesores de la Universidad y preparadores del propio programa.

El programa está basado en la colaboración: Universidad-Empresa-Administración. En el programa iNNoVaNDiS colaboran Eusko Jaurlaritza, Spri, Diputación Foral de Gipuzkoa, la Fundación Bankinter Innovación, Ibermática y Bic Berrilan. La Fundación Deusto tiene vocación de ampliar dicho marco de colaboración.

#### 3.1. Algunas características del programa iNNoVaNDiS

- VOLUNTARIO y adicional al trabajo habitual (sin créditos).
- MULTIDISCIPLINAR, transversal a los diferentes centros: Humanidades, Economía, Turismo.
- Centrado en la ACTITUD DE LA PERSONA. Se trabaja el estilo co-creativo: dar y recibir; no sólo recibir.
- EL CARÁCTER EMPRENDEDOR engloba, en nuestra opinión, las siguientes características: compromiso, empatía, cooperación e innovación.

#### 3.2. Calendario del programa iNNoVaNDiS

· El primer taller de orientación personal se lleva a cabo al comienzo del 4º curso. Desde noviembre a marzo se realiza el seminario de innovación, y después de los exámenes de junio, en los dos meses de verano, los estudiantes hacen sus primeras prácticas en empresas. Hoy en día hay 25 estudiantes en este primer grupo.

· El segundo taller, el de creatividad, se realiza al comienzo del 5º curso. Hasta los exámenes de diciembre, practican la generación de ideas (encaminadas a la creación de nuevas empresas, o a la investigación). Ese año entra el programa Erasmus desde enero a junio. En verano tienen una nueva oportunidad para hacer prácticas en empresas. En este segundo grupo hay actualmente 20 personas.

- Durante el 6º año, mientras realizan su especialidad o el master, preparan el anteproyecto de septiembre a diciembre (dirigido a creación de nueva empresa o a investigación). Hay 22 personas en este tercer grupo.
- Tras finalizar la carrera académica, los exalumnos continúan en el Club iNNOVaNDiS, con acciones de continuidad.

### **3.3. Herramientas del programa iNNOVaNDiS**

- Acciones de FORMACION: Se llevan a cabo siguiendo la filosofía de aprender haciendo.
  - Taller I: Orientación personal.
  - Seminario de innovación.
  - Taller II: Creatividad.
- Acciones de PRACTICA: Se llevan a cabo dos fases de prácticas, durante dos veranos. Dichas prácticas se realizan en todo el mundo, en la organización Bankinter y su red de empresas, así como en la red Ibermatica.
- Acciones de PROYECTO:
  - Proyecto I: Generación de ideas.
  - Proyecto II: Anteproyecto, para la creación de una empresa, para la innovación, o para la investigación.
- Acciones de SEGUIMIENTO: iNNOVaNDiS Club Alumni.

### **3.4. El programa iNNOVaNDiS en 2007**

- En octubre de 2007 se realizó un fin de semana de experiencia creativa en Getaria, dentro del apartado de FORMACION: los alumnos debían desarrollar un proyecto allí, en el plazo de viernes por la tarde a domingo por la tarde. Se realizó de la mano de la empresa de comunicación Funky Projects, y tuvo como resultado un proyecto de continuidad: ¿Somos innovadores en Euskal Herria?. Se realizó un wiki del proyecto.
- PRACTICAS. En verano de 2007 han trabajado en Ibermatica de Donostia cinco estudiantes; otros cinco en Bankinter de Madrid; dos en Capital One del Reino Unido; otras dos en Nokia de Berlin; dos en N. Piramal de India; dos en GTRM de Taiwan; una en Technion de Israel; dos en FON de Madrid y una en IDOM de Bilbao.
- PROYECTOS. El equipo de la primera generación ha trabajado en 9 proyectos innovadores: 8 para creación de nueva empresa, y otro para innovación dentro de una de las empresa donde se han realizado las prácticas.
- CONTINUIDAD. iNNOVaNDiS siempre tiene sus puertas abiertas para continuar trabajando con los participantes del programa, después de terminar la carrera.

## **4. Nuestra respuesta futura**

En la primera fase del programa iNNOVaNDiS trabajamos, sobre todo, en la promoción de la cultura emprendedora e innovadora. En una segunda fase, además, nuestro mayor reto será crear un eco-sistema para emprendedores-innovadores de la Universidad de Deusto. El objetivo es que esos estudiantes-emprendedores cuenten con todos los ingredientes necesarios para lle-

var adelante sus nuevas iniciativas empresariales.

En septiembre de 2009 habrá un nuevo edificio dispuesto para ese ecosistema para emprendedores innovadores. Allí tendrán cabida: estudiantes universitarios que provienen del programa iNNOVaNDiS; directivos emprendedores del Club Alumni (ex-alumnos), e investigadores que vienen con sus prototipos. Y en la órbita de todos ellos intervendrán:

- Empresas.
- Redes de emprendedores.
- Sociedades de Venture Capital (capital riesgo).
- Expertos según temas.
- Business Angels.
- Formación continua para directivos emprendedores.
- Etc...

## 5. Principales ideas y conclusiones del turno de preguntas

· En este programa queremos mostrar que es posible crear empresas que van más allá de los meros valores económicos. La prioridad será que los jóvenes trabajen sobre **valores**: trabajar su actitud personal, hacerles reflexionar sobre sus vidas, siendo el objetivo que sean emprendedores en todos sus aspectos, y directores de sus vidas.

· Sobre el **proceso de selección de los alumnos** del programa, ha de decirse que suele haber 'cola' para participar. El primer año fueron 86 entre 180 alumnos en total, los que quisieron participar. Y después, la publicidad sobre el programa ha ido progagándose boca a boca. Sobre todo es el trato personalizado y las excelentes oportunidades de prácticas lo que más valoran los estudiantes. Y lo más difícil es realizar bien la selección. Para conseguirlo, se toman en cuenta los siguientes factores: la opinión del coach + la entrevista personal + la carta de interés de cada estudiante + curriculum. Las notas académicas, propiamente dichas, ni las miramos; buscamos otra cosa: a ver si son movidos, a ver si tienen empuje e iniciativa...



## EKINTZAILEEN PROFILA

**Labein - Team Academy Euskadi**

*JABIER RUIZ ETA AITOR GISASOLA*

## PERFIL EMPRENDEDOR

**Labein - Team Academy Euskadi**

*JABIER RUIZ Y AITOR GISASOLA*



# EKINTZAILEEN PROFILA

## Labein – Team Academy Euskadi

JAVIER RUIZ ETA AITOR GISASOLA

### 1. Zer da Team Academy

Tiimi Akademia Finlandian sortu zen 1993an, Johannes Partanen-en ideia batean oinarrituta. Bere misioa talde-ekintzaileak sortzea da.

Ekintzaile/enpresarietzako eskola bat da Team Academy. Ez da unibertsitate arrunta, nahiz eta hiru urte eta erdiko unibertsitate-ikasketa izan, azken finean. Bertan lortzen den titulua 'Bachelors of business administration' (Enpresen Kudeaketako Lizentziatura) da.

Urteetan, Team Academy enpresa zientzietako eskola modura definitu izan da, marketinean eta berrikuntzan espezializazio sendoarekin. Oraintsukoa da, aldiz, ekintzailetasunerantz emandako jauzia.

Ikasleen azken helburu kitzikagarri bezala, lizentziatura ateratzeko urteetan zehar lortutako diru etekinekin munduari itzulia ematea ipintzen da.

Gaur egun, Finlandiako Team Academyren zifrak honakoak dira:

- 190 ikasle, 20 enpresa/taldetan eratuta.
- Programa bukatzerakoan ikasleen %20 baino gehiagok euren enpresa sortzen dute.
- Gainontzekoak lanbideratu egiten dira, zailtasun barik.

Antzeko ekimenak abiatu dira, Finlandiako esperientzian oinarria hartuta, Alemanian, Frantzia, Britainia Handian eta Holandan. Orain, baita bertan ere, Team Academy Euskadiren lehen promozioa martxan baita Labeinen eskutik.

### 2. Team Academy-ren printzipioak

Klabe nagusiak bi dira: taldean ikastea eta eginez ikastea.

Taldeekideen askatasuna eta erantzukizun edo konpromisoa dituzte hel-duleku modura. Elkarriketa da erabiltzen duten tresna nagusia batzuk beste-ei erakusteko eta gidatzeko. Ikasketa prozesua, modu horretan, egitean eta hausnartzean datza. Horrekin batera, irakurketa da ikasketaren oinarria. Eta bezeroa, berriz, prozesuaren parte bilakatzen dute.

### 3. Metodologia eta tresnak

Team Academy-ren metodologiak honako oinarriak ditu:

- Talde orekatuak (Belbin-en testa erabilita).
- Enpresaren sorrera laugarren egunean ematen da.
- Irakurketa asko.
- Entseguen idazketa.
- Garapen prozesu bat da ('Rocket Model'), hiru mailatan:
  - Garapen pertsonala.
  - Taldearen garapena.
  - Proiektuaren garapena.
- Erabaki guztiak taldean hartzen dira.



- Auto-antolaketa sistema darabil talde bakoitzak.
- Ez dago ikaslerik: ekintzaileak daude.

Horrela, entrenamendu saioak dira metodologia honetako ariketa-gune nagusiak. Bertan, ideiak adierazteko giro zabala dago. **Izan ere, elkarrizketa izango da Team Academy-ren osagai garrantzitsuena.** Eta elkarrizketaren bidez bilatuko dituzte merkatuan ase gabe dauden premiak.

Gainera, ez dira talde itxiak izango: ekarpenak egingo dizkiete taldeek elkarri, besteen problematikak ezagutuz eta gaindituz.

## 4. Ikasketa=garapen prozesua, hiru mailatan

### 4.1. Ikasketa edo garapen indibidualerako tresnak

Taldeko kide bakoitzak bakarka ere prozesu bat eroango du aurrera Team Academyn, honako galderak erantzuteko: 'Non egon naiz? / Non nago? / Norantz noa? / Nola egin behar dut lortzeko? / Nola dakit gai naizela nire ikasketa helburuak lortzeko?'

Norbanako ikasketan, ikasketa prozesuaren beraren kontrastea egingo du ekintzaileak. Horrez gain, tutoreekin eta beste ekintzaileekin batera, eurentzako prestaturiko literatura programan hartuko du parte. Entsegu bat idatziko du bakoitzak, eta egindako lanari buruzko txostena ere bai.

### 4.2. Taldeko ikasketa edo garapenerako tresnak

Taldeko kide bakoitzaren elkarrizketa pertsonala emango da tutorearekin, alde batetik. Taldeko elkarrizketa eta entrenamendu saioak egongo dira, bestetik. Eta, horrez gain, 24 orduko ekitaldia taldean, eta baita bezeroekin egingo den saioa ere.

### 4.3. Enpresa proiektuaren ikasketa edo garapenerako tresnak

Aldez aurretiko analisi bat burutu beharko dute, honako galderei erantzuteko: 'Zeintzuk dira proiektuaren helburuak? / Bezeroen papera zein da? / Ze teoria aplikatu behar ditut? / Ze jakintza mota behar du proiektuak? / Zer behar du proiektuak helburuak lor daitezen?'

## 5. Ondorio nagusiak

- Ekintzaileak dira: inizatiba daukate, asko mugitzen dira, euren dirua arriskatzen dute eta euren kabuz irtenbideak bilatzen dituzte.
- Asko-asko hitzegiten dute elkarrekin.
- Oso kultura ezberdina dute.
- Ez diete garrantzia handirik ematen jakintza teknikoei ezta kudeaketa mailakoei ere.
- Helburu zehatz batzuk lortzeko borrokatzen dute.
- Euren burua hezitzen dute.
- Esperimentatuz eta arriskatuz ikasten dute.

## 6. Igorri beharrezko mezuak

Honako hitz eta ideia sortak ondo defini dezake Team Academyren funtsa: ekintza - hitz egitea - ez da arazo bat, erronka dibertigarria baizik - egin ez ikasi - lagundu, aportatu - berritu ala hil - grina - taldean ikasi - ez da ezinezkoa, erronka dibertigarria da - dibertsioa.

## 7. Team Academy. Zergatik Euskadin ere bai

Javier Ruiz Labeineko ordezkariak bere esperientzia azaldu du, Team Academyren ekimena bertora ekarri duten honetan: "49 urte ditut eta kimikaria naiz formazioz. Enpresa munduan, fabrikazio prozesuetan urteetan jardun ondoren ikerketa aplikatuan nabil azken urteotan, Labein-en, beti ere berrikuntza teknologikoa lanerako ardatz modura hartuta. Duela hiru urte joan nintzen Team Academy ezagutzera, eta benetan, hunkituta itzuli nintzen: han zentzua hartu zuten niretzako, gaztetako hainbat gaik eta kezak, eta era berean, etorkizunera begira, berrikuntzarako giltzarriak somatu nituen han".

"Ideia klabea niretzako zera izan zen: ekintzailetasunaren inguruan han zegoen lan-ingurua ezin hobea zela sorkuntza eta berrikuntzarako.

Ordura arte nik ekintzailea heroi bakartiarekin identifikatu izan nuen. Team Academy-n, berriz, **ekintzailetasuna dibertsioarekin identifikatzen** da: taldean sortzen dute euren ametsetako lanbidea. Etengabeko talde erai-kuntzaren esperientzia bizi dute. Beti krisiak aboratu eta konpondu behar dira; eurentzat bertan jardutea komunitatea sortzea eta etengabeko aportazioa egitea da, konpromisoa eta dibertsioa uztartuz".

Modu horretan, gainera, itxuraz **oso gaitzak edo ezinezkoak diruditen enpresak ere posible** egiten dira. Horretaz, adibide bat xehetu du Javier Ruizek: "Hamabi laguneko talde-enpresak honako proiektua atera zuen aurrera: Kanariar Irletan belaontzi batean sartu eta Karibera ailegatzea. Bidaia-enpresa horrentzako behar zen finantzazioa eta etekinak bidaia bera telebista eta irratiei salduta lortu zituzten. Ontzia bera, kapitaina eta marinela lortu zituzten, eta beraien burua ere nabigaziorako prestatu zuten, ez baizekiten ezer horretaz alde aurretik... Ba, bidaia burutzea lortu zuten.

Behin Finlandiako esperientzia ezagututa, eta kontuan harturik baldintza edo baliabideen aldetik antzekoak garela herrialde biak, han inspiratutako esperientzia nahi izan dugu hemen sortu, eta lehenengo talde oraintxe eratu berri dugu: 2008ko urte hasieran abiatu da.

Beraz, egiten gabiltzana da: **esperimentazioa, ikasketa eta lidergoen garapena uztartzen dituen gune zabala sortu, taldean ekiten duena**, beti ere jakintza gune intentsiboetan arreta ipinita.

Programa hau euren ikasketak amaitu dituzten hamar gazteri zuzenduta dago, euren ametsetako lanbidea sortzeko prest daudenak. Horiekin batera izango dira bost ikertzaile-teknologo, jakintza arlo desberdinetatik datozenak, ideia berriak praktikan ipintzeko prest daudenak.

### 7.1. Antolaketa, gaiak, programa

Aurreikusi den dedikazioa 200 ordu presentzial eta beste 200 ez presentzialak dira: Bi hilean behin egun bi eta erdiko mintegi itxia egingo da talde-

enpresa modura. Astean behin taldearen bi orduko saioa egingo da, coach edo prestatzaileek lagunduta (talde-enpresa). Horrekin batera, bezeroek eskatuta-ko proiektuetan egingo da lana (talde-proiektua).

Gai tematiko nagusiak honakoak dira:

- Banakako ikasketa taldean, (urtarrila - otsaila).
- Lidergoa, (martxoa-apirila).
- Marketina eta bezeroekiko harremana, (maiatza-ekaina).
- Berrikuntza, (uztaila-iraila).
- Enpresaren estrategia, (urritik abendura).

Guztien arteko elkar-lotura lantzen da, ekintzaileak sortzeko bidea urratuz, hiru pausoen inguruan: ideia, esperimentazioa eta praktika.

Urte osoa hartuko duen programan, ikuspuntu partekatua eta enpresa bera sortuko dira, norbanako eta taldekako ikasketaren oinarriak landu ostean. Benetako bezero eta proiektuekin kontaktuan egongo dira. Bezeroek aurkitu izan dituzten konpetenziengan ipiniko da esfortzua. Aukeratutako gaien inguruan nazioarteko mintegi eta topaketetan hartuko da parte. Enpresaren etorkizuna erabakiko dute taldekideek.

## 7.2. Labein eta Tecnalía. Nortzuk gara

### **Labein. [www.labein.es](http://www.labein.es)**

Kontratupeko Ikerketa + Garapena lantzen 50 urte baino gehiagoko esperientzia daukan organizazioa da. Bere misioa: enpresen berrikuntza gaitasunari laguntza ematea, teknologia erabilita lehiakortasunerako tresna modura. Labein-ek bere bezeroen negozio estrategiak aztertu eta bere egiten ditu, lankidetzaren bitartez berrikuntza teknologikorako estrategietan zehaztu daitezzen.

Hainbat sektoretako bezeroekin dihardu: automozioa, lurraldearen garapena, tokiko garapena, energia, siderurgia, asebetetasun ikerketa zerbitzuak...

### **Tecnalia. [www.tecnalia.es](http://www.tecnalia.es)**

Tecnalia Korporazio Teknologikoa da, honako zentro teknologikoek osatzen dutena: Azti, European Software Institute, Inasmet, Labein, Neiker, Robotiker eta Fatronik. Misioa: inguru ekonomiko eta sozialaren garapenean laguntzea teknologiaren berrikuntza sustatuz, ikerketaren bidez. Urtean 3.500 enpresa baino gehiagorekin jarduten du lankidetzan hainbat proiektutan, bai sektore berrietan, bai sektore helduetan.

## 7.3. Leadership Experience-ren bidez eskaintzen dena

Labein-Tecnaliaren instalazio modernoetan leku pribilejiatua erabiltzeko aukera daukate programan sartu diren gazteek. Ikertzaileekin lan egin eta benetako proiektuak sortzeko aukera dute. Team Academy metodologian trebatutako bi coach dituzte laguntzeko, eta baita Europako Team Academy sareko espertoen partaidetza ere.

Inguru horri esker, garapen pertsonalean zein lan garapenean ikuspuntu berriak garatu ahal izango dituzte: Ametssetako lanbidea sortu. Benetako esperientzia jaso ahal izango dute enpresa sorkuntzan, marketing arloan zein

lidergoan. Leadership Experiencen sortuko duten enpresarekin jarraitu ahal izango dute gero, edo bestela beste enpresa bat sortu, bakarka zein taldeko beste kideekin batera. Eta lehendik sortuta dagoen enpresa batean zein zentro teknologiko batean jarduteko ere oso baliagarriak izango dira programan jasotako abileziak.

#### **7.4. Lehenengo talde horretako gazte partaide baten iritzia. Aitor Gisasola.**

Aitor Gisasolak amaitu berriak ditu Ekonomia ikasketak. 24 urte ditu. "Argi neukana zen ez nuela neure burua ikusten banku bateko mostradore atzean lanean, edo bestelako zeregin kontable edo administratiboak egiten edozein enpresatan. Zer edo zer neuk nahi dut sortu, egin; oraindik ez dakit zer..., baina finlandiarren filosofiarekin bat eginda, prest nago jauzi edo dzan-ga egiteko". Gisasola Labeinek eraturako Team Academy Euskadiko lehenengo taldeko kidea da, eta pozez beterik mintzo da: "Neure moduko beste bederatziz gazterekin partekatuko dut esperientzia, elkarrekin pentsatu, hitzegin, haserretu, barre egin, amestu... Desiatzen nago".

#### **8. Galderen txandan ateratako ondorioak eta ideia nagusiak**

Team Academyren filosofia berritzailearekin bat eginda, Javier Ruizek gonbitea egin dio publikoari, aldamenekoeekin berba egiteko (elkar ezagutu zein ez), eta gaiak iradoki izan diera komentatzeko, ideia nagusi baten inguruan: "Zuk zeri nahiko zenioke ekin?".

Tarte bat hartu du publiko guztiak horretarako, eta elkarrizketa animatuak sortu dira han eta hemen. Batzuen iritzia jaso dira ondoren.

Programa honetan parte har dezakete: euren enpresa sortu nahi dutenek eta ideia bat definituta daukatenek, edo eta enpresa batek emandako ideia bat garatzeko prest dauden ekintzaileak; Ripollés eskualdean inplantatzeko prest daudenak, eta jardun osoa horretara jartzeko moduan daudenak.

Jardun Osoko lau ekintzaile eduki ahal izango dira programan, gehiezin, aldi berean.

Ekintzaile jarrera eta proiektuaren egingarritasunaren araberako hautaketa zorrotza egiten da.

Ekintzailea CIEM-en egoitzetan egon ahal izango da, bertan jardun osoz lanean. Etengabe egongo dira tutoretza pertsonalizatuak adituekin. Programaren zuzendaritza taldeak jarraipena egingo dio uneoro proiektu bakoitzari.

CIEM-en ekarpenak honakoak dira ekintzaileen programarako:

- Azpiegitura.
- Enpresa planaren garapena egitea.
- Produktuaren garapena egitea.
- Lehenengo eskariak.
- Finantza premiak: Fundazioak behar denaren %49,9 inbertitu dezake, 5 urtez. 6. urtean desinbertsioa hasten da.
- Bazkide eta akziodunen bilaketa.
- Oinarri legal, fiskal eta laboralak.

Programa honako faseetan garatzen da:

- Produktu/zerbitzuaren definizioa eta enpresa sorrerarena. Negozio aukerak identifikatu eta zehaztu.
- Enpresa planaren garapena.
- Prototipoa egin.
- Enpresaren sorrera.

## 7. Vila Icaria proiektua

Katalunia osoko ekintzaileak erakartzeko ingurune aproposa izateko asmoarekin jaiotzen ari den proiektua da Vila Icaria. Ekintzailetasunerako presaturiko lan eta bizi izateko gune egokia izango da. Bertan, 14 etxebizitza eta beste 400 metro koadroko lan-gune eta espazio komunak egongo dira.

Vila Icariaren sustatzaile dira Eduard Soler Fundazioa eta Sant Joan de les Abadesseseko Udala.

## 8. Galderen txandan sortutako iritzi eta ondorio nagusiak

- Fundazioak proiektuetan egindako inbertsioei buruz: inbertsioa beti berreskuratzen da. Irabazi ez, dirutan; baina bai bestela.
- Eduard Soler Fundazioaren lana definitzen duen filosofia nagusia eskualdearen eta Kataluniaren garapenarekiko konpromisoa da.
- Enpresa berrien sorrerarako programaren sei edizioetatik sortu diren enpresa guztien artean bakarra desegin da (eta bera, erantzuteko baino enkar-gu gehiago zituelako). Horretarako klabea alde aurretiko hautaketa zorrotzean dago CIEMeko kideen esanetan: urtean 50-60 proiektu hautagai dauzkate programarako; hortik 20 bat hartzen dituzte. Eta gero, sustatzaile horiek **aste-buruetan** egoten dira zentroan lanean, sei hilabetez. Horietatik erdiak-edo lortuko dute enpresa modura eratzea. Esfortzu handiegia da enpresa bat sortzea, gero bertan behera hil dadin.

# COLABORACIÓN PÚBLICO-PRIVADA QUE GARANTICE UN ENTORNO ADECUADO PARA LA CREACIÓN DE NUEVAS EMPRESAS

**Fundació Eduard Soler, Centre d'Iniciatives Empresariales del Metall  
( Ripoll - Gerona - Catalunya )**

XABIER MAS

La Fundación Eduard Soler se sitúa en la comarca del Ripollés, en Girona, y abarca en su seno el Centre d'Iniciatives Empresariales del Metall, la Escola del Treball de Ripollés y el Centre Tecnològic Eduard Soler. En el centro de su misión está el desarrollo de la comarca y de Catalunya.

La comarca del Ripollés se halla en la zona montañosa de Girona y tiene 27.000 habitantes. "Tiene una gran similitud con Lea-Artibai", en palabras de Xabier Mas, tanto en dimensiones como en características: "Allí también estamos entre dos ríos, el Ter y el Freser; y allí también nos empuja el deseo de vivir y trabajar en nuestra comarca, igual que ocurre aquí".

## 1. La Fundación Eduard Soler ([www.fes-etr-cat](http://www.fes-etr-cat))

El proyecto de la fundación nació de una propuesta del conocido empresario del Ripollés Eduard Soler. Siendo copropietario de la firma Soler&Palau — una de las empresas más importantes a nivel mundial en la fabricación de aparatos de ventilación—, en sus últimos años donó parte de su patrimonio para crear la Escola del Treball. Los valles, antaño carboneros y ferreros, y más tarde de gran actividad textil, vivían una seria crisis. Hoy en día, por ejemplo, la industria textil en la comarca supone apenas un 10% de lo que era. A través de la escuela, el objetivo era preparar trabajadores cualificados en las áreas de mecánica, electricidad y electrónica.

Y así, la Escola del Treball de Ripollés, se constituyó como fundación privada en 1996, quedando registrada como tal por la Generalitat de Catalunya. El señor Soler falleció el 9 de enero de 2000, y entonces donó todo su patrimonio a la fundación: "la nuestra es una iniciativa nacida de la generosidad", afirma Mas.

Desde entonces, además de la Escola del Treball, también el Centre Tecnològic Eduard Soler y el Centre d'Iniciatives Empresariales son también los pilares de la fundación.

Y en esos tres pilares, la fundación trabaja por tres misiones: la formación (Escola del Treball), la promoción de la actitud emprendedora (Centre d'Iniciatives), y el desarrollo de recursos tecnológicos (Centre Tecnològic).

## 2. Centre d'Iniciatives Empresariales del Metall (CIEM)

El objetivo del CIEM es promover la creación de nuevas empresas, y el desarrollo del espíritu emprendedor, especialmente en el sector industrial y metalúrgico. Tiene su centro de actividades en Ripoll y se dirige al conjunto de Catalunya.

Los socios fundadores del CIEM son, junto con la Fundación Eduard Soler, diversas asociaciones empresariales metalúrgicas de Catalunya (UPM,

Fegmetall, Apemta y Femell), la Universidad Politécnica de Catalunya y la asociación para el desarrollo comarcal Ripollés Desenvolupament.

Estas son las principales actividades del CIEM:

- Programa de creación y gestión de empresas.
- Programa de consolidación de Pymes.
- Estudios.
- Emprendedores a pleno tiempo.
- Proyecto Vila Icaria.

### **3. Programa de creación y gestión de empresas**

Lo conforman el conjunto de actividades de formación, asesoramiento y acompañamiento en la creación de nuevas empresas. Se dirige a personas de diferente procedencia funcional (comercial, técnica o financiera).

El programa está en su sexta edición, y comienza cada año en enero y finaliza en junio, en formato de fin de semana: viernes y sábado por la mañana. Los participantes del programa vienen desde toda Catalunya. Además, el programa se desarrolla conjuntamente con la Escuela de Organización Industrial de Madrid.

#### **3.1. Resultados del programa**

- En las cinco ediciones precedentes se han creado 58 nuevas empresas, con 214 empleos directos.
- He aquí algunos ejemplos de empresas que han salido adelante hasta ahora, con el número de puestos de trabajo creados:
  - Productos y servicios para personas con discapacidad (2).
  - Domótica (1).
  - Diseño, fabricación y venta de muebles para exterior (2).
  - Ingeniería para ahorro energético (2).
  - Servicios financieros a empresas (1).
  - Aplicación de nuevas tecnologías en el sector turístico (2).
  - Externalización de TICs para empresas (2).
  - Estructuras de cubiertas de madera (2).
  - Venta de productos para mascotas (10).
  - Electrónica y telecomunicaciones (3).
  - Fotografía aérea de proximidad (3).
  - Fotografía en 3D (1).
  - Diseño gráfico (3).
  - Audiovisuales y multimedia (3).
  - Prospecciones geotécnicas (5).
  - Protección pasiva contra incendios (10).
  - Sistemas de ventilación y energía fotovoltaica (2).
  - Tratamiento de aguas (3).
  - Huerto solar (4).
  - Empresa de limpieza (2).
  - Servicio de reparaciones náuticas (4).
  - Servicios de imagen y publicidad (3).
  - Instalaciones y mantenimiento industrial (18).
  - Asesoría para la gestión de recursos humanos (6).

- Diseño e ingeniería de nuevos alimentos (2).
- Diseño, fabricación y venta de muebles de oficina (40).
- Implantación de nueva línea de mobiliario para instituciones (31).
- Etc..

#### **4. Programa de consolidación de Pymes**

Engloba dos módulos: el diagnóstico de empresa y el plan estratégico. Tiene un fuerte componente de consultoría más unas horas de formación en el aula. El participante recibe un informe con un diagnóstico de la situación actual de su empresa y un plan estratégico de mejora.

Se dirige especialmente a los participantes en los programas de creación y gestión de empresas, pero también está abierto a pequeñas empresas de nuestro entorno relacional.

Se realiza durante el último trimestre del año, realizando la formación los viernes por la tarde y las consultorías de lunes a jueves. En 2007 ha sido la segunda edición del programa.

#### **5. Estudios**

· El centro realizó un estudio sobre la acreditación de las competencias profesionales en 2004. Para ello se visitaron 53 empresas del sector del metal de Girona; se hizo un seguimiento de los diez candidatos para la acreditación de sus competencias profesionales, y cuestionarios a empresas, candidatos y directores de Institutos de Cualificaciones Profesionales de diferentes comunidades autónomas.

· Un estudio sobre spin-offs en 2006 (empresas nacidas del seno de una empresa): se visitaron 20 empresas del entorno relacional del CEIM; también visitas a expertos en la creación de empresas. Tras definir los procesos y tipología de creación de spin-offs, las conclusiones del estudio se aplicaron en el programa de Emprendedores a Pleno Tiempo.

#### **6. Emprendedores a Pleno Tiempo**

Se trata de apostar fuerte por la creación efectiva de empresas. La persona emprendedora se dedica "full time" a su proyecto y, durante este período, puede incluso recibir una beca-salario, y, gracias a convenios de colaboración con algunos ayuntamientos de la comarca, también vivienda en alquiler protegido. Este programa apuesta por promover aquellos proyectos empresariales que han ido quedando en el cajón, a través de esa dedicación plena de los emprendedores.

En este programa pueden tomar parte quienes quieran crear una empresa y tengan una idea definida, o estén dispuestos a desarrollar una idea aportada por una empresa. Otra condición es la voluntad de implantarse en el Ripollés, así como la disposición de tiempo para dedicar toda la jornada a esta tarea. Se podrá contar, paralelamente, con un máximo de cuatro emprendedores a pleno tiempo.

Se realizará una selección rigurosa en función de la capacidad empen-

dedora y del potencial del proyecto.

El emprendedor podrá estar instalado en las dependencias del CIEM, donde trabajará toda la jornada. Continuamente, habrá tutorías individualizadas con expertos. En todo momento el proyecto se seguirá por el equipo de dirección del programa.

Estas son las aportaciones del CIEM para los emprendedores de este programa:

- Infraestructura.
- Desarrollo del plan de empresa.
- Desarrollo del producto.
- Primeros pedidos.
- Resolución de necesidades financieras: la Fundación puede invertir un 49,9% de la cantidad inicial necesaria, a 5 años. Al 6º año comienza la desinversión.
- Búsqueda de socios y accionistas.
- Bases legales, fiscales y laborales.

El programa se desarrolla en las siguientes fases:

- Introducción al producto/servicio y a la creación de empresa.
- Delimitación de la oportunidad de negocio.
- Desarrollo del plan de empresa.
- Elaboración del prototipo.
- Constitución de la empresa.

## 7. Proyecto Vila Icaria

Vila Icaria nace con la voluntad de ser un foco de atracción para instalar emprendedores de toda Catalunya que quieran vivir y trabajar en un espacio diseñado para desarrollar esta función.

Cuenta con 14 viviendas y unos 400 m<sup>2</sup> para distribuir en módulos de trabajo y espacios comunes. Está promovido por la Fundación Eduard Soler y el Ayuntamiento de Sant Joan de les Abadesses.

## 8. Principales ideas y conclusiones del turno de preguntas

- Sobre las inversiones de la fundación en los proyectos: la inversión siempre se recupera. No hay ganancias en dinero; sí otro tipo de ganancia.
- La principal idea o filosofía que define el trabajo de la Fundación Eduard Soler es el compromiso con el desarrollo de la comarca y de Catalunya.
- De todas las empresas que han nacido en las seis ediciones del programa de creación de empresas, sólo una ha desaparecido (y ha sido, por no poder atender a todos los pedidos). La clave para ese éxito reside en la rigurosa selección previa según los representantes del CIEM: cuentan cada año con 50-60 proyectos candidatos para el programa y escogen unos 20. Después, esos emprendedores están trabajando en el centro durante seis meses. Aproximadamente la mitad conseguirán constituirse como empresa. Crear una empresa es un esfuerzo demasiado grande, para dejarlo perecer luego.





LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA ENPRESA  
BERRITZAILEEN SORRERARAKO BALDINTZAK  
BERMATZEKO INGURU BATEAN

**Azaro Fundazioa - Esperanza 2013 proiektua -**  
'Lea-Artibai eskualdearen garapenaz konprometiturik'  
*AINARA BASURKO*

COLABORACIÓN PÚBLICO-PRIVADA QUE  
GARANTICE UN ENTORNO ADECUADO PARA  
LA CREACIÓN DE NUEVAS EMPRESAS

**Azaro Fundazioa - Proyecto Esperanza 2013 -**  
'Comprometidos con el desarrollo  
de la comarca de Lea-Artibai'  
*AINARA BASURKO*



# LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA ENPRESA BERRITZAILEEN SORRERARAKO BALDINTZAK BERMATZEKO INGURU BATEAN

**Azaro Fundazioa - Esperanza 2013 proiektua**

**'Lea-Artibai eskualdearen garapenaz konprometiturik'**

AINARA BASURKO

## 1. Lea-Artibai eskualdearen garapen ekonomikoaren giltzarriak 1950az geroztik

Hito nagusi batzuk aipatu beharra dago eskualdearen azken hamarkadetako garapen sozio-ekonomikoa ulertzeko:

- **1956. Lanbide Eskola Parrokialaren sorrera** Markina-Xemeinen, eskualderako garapen profesional eta ekonomikorako bokazioarekin. Lehenengo kooperatiba esperientziak garai hartan jaioko dira, eta horrekin batera jardueren dibertsifikazioaren hastapena gertatuko da. Lanbide Eskolan formatutako gazteek eskualdea lideratzen dute arlo horretan.

- **1974. Eskualdearen azterketa sozio-ekonomikoa** egin zen. Bertan, ondorio nagusi modura ageri ziren: industria berriak sortu beharra, emakume gehiago lan mundura barneratu beharra eta hezkuntza bultzatzeko premia.

- **1977. Learkoren sorrera** kooperatiben korporazioaren baitan, helburu nagusi birekin: martxan dauden kooperatibak kontsolidatzea eta etorkizunerako proiektu bideragarriak planteatzea.

- **70-90. Nazioarteko krisia.** Esfortzu guztiak orduan zeuden enpresak kontsolidatzera bideratu behar dira. Learkok eskualdearen garapenean duen lidergoa indartu egiten da, eta Eskualdeko Lanbide Eskolaren sorrera bultzatzen du (1976).

- **1991.** Kooperatiben organizazio sistema aldatu egiten da, eskualde mailako egiturak desagertuz. **Learkoren desagertzeak** hutsune bat uzten du eskualdearen garapen integralerako lidergoan. Ez dago eskualdearen ikuspegi integralik, eta ezta ikuspegi hori eguneratu eta berregituratuko duen arduradunik ere.

- **1994. Lea-Artibaiko Amankomunazgoaren Plan Estrategikoa** idazten da. Bertan, ondorio nagusi modura ageri da jardueren dibertsifikazio premia eta enpresa berrien sustapen premia.

- **1994. Lea Artibai Ikastetxearen hausnarketa estrategikoa**, hiru egitekoren inguruan: Inguruarekiko konpromisoa – teknologia konkretu bartzuetan erreferente izatea – enpresa berrien sorreraren aldeko apostua egitea ikastetxetik.

- **2001. Azaro Fundazioa sortzearen aldeko apostua egiten du Lea Artibai Ikastetxeak.** Eraginkortasuna, osagarritasuna eta sinergien bilaketa lortu nahi dira horrela.

## 2. Lea Artibai Ikastetxea: Eskualdearen agente eraldatzailea

Misioa: Bere inguruaren agente garatzailea nahi du izan Lea Artibai Ikastetxeak, bere bezeroei kalitatezko prestakuntza eskainiz, eta horretarako beharrezko diren harremanak mantenduz inguruko enpresa sarearekin eta erakundeekin. Gizarte ekimenezko erakundea da, langileen partaidetzan eta hauen eta orohar inguruaren bizi kalitateaz konprometituta.

## 3. Lea Artibai Ikastetxearen eskaintza

Hiru ataletan sailka daiteke: hezkuntza eskaintza, zerbitzu eskaintza eta garapen teknologikoa eta enpresa sustapena; azken hau Azaro Fundazioaren bitartez burutzen dena.

- **Hezkuntza eskaintza:** Lea Artibai Ikastetxean batxilergo, erdi mailako prestakuntza ziklo eta goi mailako prestakuntza zikloekin batera polimeroen ingeniari-tza unibertsitate mailako lizentziatura eskaintzen da (London Metropolitan University-rekin duen akordioaren baitan). Horrez gain, etengabeko heziketa ikastaroak eta INEM zein Lan Saileko ikastaroak ere ematen dira bertan.

- **Zerbitzuen eskaintzari** dagokionez, garraio, jantoki, eta egotetxeaz gain liburutegia, software guztiekin ekipaturiko ordenadore gelak eta tailerrak daude. Lan arriskuen prebentzio zerbitzuak, orientazio eta laneratze zerbitzuak eta nazioarteko harremanetarako departamentuak osatzen dute zerbitzuen atala.

- **Enpresa sustapena eta garapen teknologikoari** dagokion atala da jardunaldi honetan gehien interesatzen dena. Ikastetxeak, Azaro Fundazioaren bazkide sortzaile modura, fundazio horren bitartez daroa aurrera eskualdean enpresa sustapena eta lehiakortasunerako zerbitzuei dagokien lana. Garapen teknologikoaren atalean, berriz, Saretek sareko kide modura, enpresei dibertsifikaziorako eta produktu berrien definiziorako zerbitzua eskaintzen die. Bi arlo estrategikotan ipintzen da enfokea: materialeak eta elikagaiak. Horrez gain, enpresei zerbitzu teknikoak eskaintzen dizkie Lea Artibai Ikastetxeak.

## 4. Lea Artibai Ikastetxea – Azaro Fundazioa: enpresa eta jarduera berrien sustapenean eragiten

Azaro Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea da, bere inguru hurbilean, lehenetasunez Lea-Artibai eskualdean, enpresa berriak sortu eta enpresa sarearen lehiakortasuna hobetzea helburu duena.

### 4.1. Printzipioak eta lanaren ardatzak

- Eguneroko lanaren ardatzak: berrikuntza, informazioa eta eza-gutza jaso eta hedatzea; eta sustapen kultura eskualdean zabaltzeko zerbi-tzuak eskaintzea.
- Eskualdearen ordezkari-tza biltzen du eta erakunde integratzaile-a da.
- Kooperazioa eta bitartekaritza eragiten du eskualdeko garapen agente guztien artean.

- Berrikuntza. Lehiakortasun eta berrikuntzarako eskualdeko erdigune izateko bokazioa dauka.
- Kultura ekintzailea eta berrikuntza garatzeko eskualdean, eza-gutzaren hedapena eta zerbitzu egokiak ematea du helburu.

## 4.2. Azaro Fundazioaren osaketa

· Fundazioaren **patronatoa** osatzen dute Lea Artibai Ikastetxeak, Okamikako Industrialdeak, Markina-Xemeingo Udalak eta Lea Ibarreko Udal Txikien Mankomunazgoak.

- Aurki patronatoko kide izango da, zuzenean, eskualdeko

**Kooperatiben Mahaia.** Mahaian daude Lea-Artibai eskualdean diharduten bederatzi kooperatiba, Busturialdean diharduen beste bat, eta Gaztempresa erakundea.

· Patronatoaren erabakiak gauzatzeko eta eguneroko jardunera-ko **lan talde kudeatzailea**: patronatoko idazkaritza, enpresa sustapenerako teknikariak, aholkulari-kontsultoreak eta tutore teknologikoak dira partaide.

· Azaro Fundazioaren **babesle eta laguntzailea** da, orain arte, Lea-Artibaiko Amankomunazgoa. Hau ere, aurki, patronatoko kide izango da zuzenean. Lea-Artibaiko Garapen Agentzia; Bizkaiko Foru Aldundia; Eusko Jaurlaritza, INEM, Espainiako Lan Ministerioa eta Europako Gizarte Funtsa ere babesleak dira.

## 4.3. Azaro Fundazioaren eskaintza

Fundazioaren eskaintza hiru gune nagusitan sailka daiteke: Sustapen gunea, enpresa gunea eta behatokia.

· **Sustapen gunearen** egitekoa enpresa proiektuak identifikatu, zehaztu eta garatzeko zerbitzu integrala eskaintzea da. Lehentasuna daukate oinarri teknologikoa duten proiektuek.

· **Enpresa guneak** inguruko enpresen garapen, hobekuntza eta berrikuntza prozesuetan bidelagun izatea du helburu.

· Aurreko zeregin gune bietan modu eraginkorrean ekiteko, **Behatokiak** etorkizuna aurreratzeko dinamika aktiboa sortu eta ezagutza hori eskualdeko sare industrial eta sustatzaileen eskura jartzen du.

## 5. Etorkizuneko proiektua: Esperanza 2013. Lea-Artibai eskualdeko berrikuntza eta garapen gunea

Azaro Fundazioak 2006an egin zuen etorkizunera begirako hausnarketa estrategikoa. Horren emaitza modura, hurrengo zazpi urteetarako 'errepide mapa' izango zuen proiektua jaio zen: Esperanza 2013.

Inguruko enpresa sarearen garapen teknologikoan eta lehiakortasunaren hobekuntzan bidelagun izatea da misio nagusia, garapen propioen bidez edo ezagutza berriak eskuratuz. Lea Artibai Ikastetxeko ezagutza guneekin erlazionaturiko sektoreetan jardungo da, lehentasunez.

Horrekin batera, profesional gaituak prestatzea izango da erronka, hauen izaera ekintzailean eraginez batez ere. Izan ere, Esperanza 2013 proiektuaren azken xedea oinarri teknologikoa edo eta izaera berritzailea –eta ahal den neurrian kooperatiboa- duten enpresa edo jarduera berriak sortzea da.

Bi hitzetan, proiektua Lea-Artibaiko enpresa ehuna sendotzera eta, orohar, eskualdea lehiakorrago egitera bideratua dago.

Esperanza 2013 proiektuak **lau lan-ardatz nagusi** ditu: ekintzailea, ikerketa eta teknologia, prestakuntza eta zerbitzu integrala, beti aukera berrien prospekzioarako jarrera proaktiboarekin.

### **5.1. Ekintzailetasuna, berrikuntza eta balore kooperatiboak**

- Eskualdeko ikastetxeetan lantzen hasi beharreko balioak direla iritzita, lan-mahaia eratu da beraiekin. DBHko ikasleek, lehenengo eta behin, eskualdea bera ezagutu eta baloratzea nahi da, etorkizunerako inplikazioa erein nahian. Bisitak, material didaktikoa eta lehiaketak baliatu dira, orain arte, horretarako.

- Lea Artibai Ikastetxeko jarduera desberdinetan dago ekintzaile harrobia, eta hor finkatuko da ere lana.

- Enpresetan: barne-ekintzailetasuna eta berrikuntza prozesuak martxan ipintzeko metodologiaren inplantazioan bidelagun da Azaro Fundazioa.

- Gizartean orohar kontzientzia eragin, jardunaldi, ideia lehiaketa eta Hazi aldizkariaren bitartez.

### **5.2. Ikerketa eta teknologia – I+D**

Eskualdean enpresa sare lehiakorra izateko, ikertzea premiazkoa da, produktu eta jarduera berrien identifikaziora bideratuz ikerkuntza, modu desberdinetan:

- Zaintza teknologikoko proiektuen bidez.
- Doktoretza programak sendotuz.
- Barne proiektu propioekin.
- Enpresekin batera eginiko garapen teknologikorako proiektuekin.

### **5.3. Ekintzailetasunerako prestakuntza**

- Sustatzaile eskolaren bitartez.
- Tutoretza pertsonalizatuaren bidez.
- Sustatzaile profilean sakontzeko moduluak.
- Graduondoko ikasketak eta masterrak ekintzailetasun ikuspuntuaz.

### **5.4 Enpresak eratu eta sendotzeko zerbitzu integrala**

- Fase guztietan zerbitzu osoa: ideiarekin definiziotik hasita – merkatu azterketa – enpresa plana – garapen teknologikoa – enpresaren sorrera – jarraipena eta finkatzea.

### **5.5 Esperanza 2013 proiekturako azpiegiturak**

- Lea Artibai Ikastetxean ikerkuntza eta formazio gunea.
- Esperanza Eraikina: Azaro Fundazioaren egoitza, gune teknologikoa eta enpresa haztegia.

- Azpiri Eraikina: Enpresa berrien kontsolidaziorako gunea.
- Legamin: Lea Ibarreko enpresa haztegia.
- Lea-Artibaiko Garapen Agentziako bulegoak Ondarroan, Markina-Xemeinen eta Lekeitio: lehiatila eta informazio puntuak.
- Markina-Xemeingo Elkartegia: sustatzaileentzako gunea bidegarritasun analisi faserako.

## 6. Esperanza 2013: helburuen kuantifikazioa

- 90 jarduera berri sortu nahi dira 2013 bitarte: %75 zerbitzuetakoak eta %25 industria arlokoak. Horietatik %25 ekonomia sozialekoak eta %60 izaera berritzailedunak izatea da egitasmoa. Barne ikerketatik sortutakoak izatea nahi da %20, eta barne promoziotik sortuak %30. 500 lanpostu berri finkatuko lituzkete 2013rako, horietatik erdia emakumeena.
- 22 dibertsifikazio proiektu finkatu dira helburuetan.
- Eskaintza unibertsitarioaren helburuak honakoak dira 2013ra arte: 120 graduatu polimeroen ingeniaritzan, 120 master (60 polimeroetan eta 60 elikagaietan), eta 18 doktoretza (12 polimeroetan eta 6 elikagaietan).
- Ikerkuntzarekin lotuta, honako beste helburuak ere kuantifikatu dira: 24 publikazio nazioarte mailan, patenteak, ikerketa proiektuak enpresekin eta teknologien garapenerako barne ikerketa proiektu.

## 7. Esperanza 2013rako antolamendua

- Negozio aukera berrien prospekziarako ikerkuntza modu eraginkorren antolatzeke, PROBE lan taldea eratu da Lea Artibai Ikastetxeko eta Azaro Fundazioko kideen artean (Produktu Berria lan taldea). Horren barruan, Azaro Fundazioak, ProbeMat (materialeak) azpi lan taldeak eta ProbeElik (elikagaiak) azpi lan taldeak gestio plan amankomuna daroe. Enpresa proiektuen definizio eta garapenean lankideak dira. Euren lanerako, adituen gunearekin interakzioan dihardute. Eta **PROBE lan taldeak** egitekoa eta egindakoa erabakigunetik dator, eta bertara doa.
- **Erabakigunea:** Lea Artibai Ikastetxea eta Azaro Fundazioa. Aitatu bezala, PROBE lan taldearekin, proiektu bakoitzaren arduradunekin eta adituekin interakzioan erabakitzen du.
- **Adituak** sektoreka eta orokorrean. Eskualde mailako honako eragileen iritziak modu antolatuan eragiten eta erabiltzen dira negozio aukera berrien prospekziarako. Adituen arloan kokatzen dira: Okamikako Berrikuntza Mahaia, Kooperatiben Mahaia, Sustatzaile sarea, Sustapen kultura hedatzeko lan mahaia, Adituen Mahaia edo aholku batzordea, Turismo Mahaia eta PERCO merkataritza mahaia (Lekeitio, Ondarroa eta Markina-Xemein).

### 7.1. PROBE lan taldearen jarduera

PROBE lan taldearen egitekoa behaketa eta ikerketari dagokio. Produktu, merkatu, teknologia eta pertsonen antolakuntzari dagokionez, aukera berriak enfokatu, definitu, ebaluatu eta garatzea da egitekoa, modu desberdinetan: enpresekiko lankidetzan merkatu analisiak, prospekzio lanak eta zaintza teknologi-

koko lanak eginez; cluster eta sektorekako elkarrekin elkarlanean; zentro teknologiko eta enpresa sustapenerako zentroekiko elkarlanean; azoka eta jardunaldi teknikoan bidez; patenteen azterketa eginez edo eta sormen tailerren bitartez.

Identifikazio fasean, produktu/merkatu/teknologia (PMT) horren definizioa burutzen da, bere bideragarritasun teknologikoa zehaztuz, talde sustatzailearen inplikazioa ebaluatuta eta merkatu potentziala marraztuz, negozio aukeraren baieztatzea (edo baztertzea) lortu arte.

Horren ostean, proiektuen garapena letorke, sustatzaile taldearen prestakuntza-coaching etengabearekin, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoaren azterketa, prototipoen garapena eginez, enpresa plana, eta azkenik enpresa edo jarduera berriaren eraketa eta kontsolidazioa jarraituz.

## **8. Esperanza 2013. 2007ko jarduna**

- 10 zaintza orokor eroan dira aurrera, honako arloetan: polimeroak elikagaigintzan / biodegradableak diren materialen aplikazioa industrialak / plastikoen aplikazioa Japonian / ingurumena: akustika eta bibrazioa / plastikoen aplikazioa eraikuntzan / mekanizazioa / turismoa / micromanufacturing / POF (plastic optic fibre) / trenbide eta tren sektorea.

- 4 zaintza zehatz.
- 6 enpresa proiektu berritzaile.
- 4 dibertsifikazio proiektu eskualdeko enpresekin.

## **9. Esperanza 2013. Proiektuaren giltzarriak laburbilduz**

- Pertsonak.
- Elkarlana – osagarritasuna – kooperazioa arlo publiko eta pribatuaren artean.
- Berrikuntza etengabeko lan dinamika bezala.
- Sustapen kultura.
- Inguruaren garapenarekiko konpromisoa.
- Enpresen beharrian eta etorkizuneko erronketara egokitzea eta orientatzea.
- Bitartekaritza eraginkorra.

# COLABORACIÓN PÚBLICO-PRIVADA QUE GARANTICE UN ENTORNO ADECUADO PARA LA CREACIÓN DE NUEVAS EMPRESAS

**Azaro Fundazioa - Proyecto Esperanza 2013**

**'Comprometidos con el desarrollo de la comarca de Lea-Artibai'**

AINARA BASURKO

## 1. Claves del desarrollo comarcal desde 1950

Cabe mencionar unos hitos clave para comprender el desarrollo socio-económico de la comarca en las últimas décadas:

- **1956. Creación de la Escuela Profesional** parroquial en Markina-Xemein, con vocación de desarrollo profesional y económico comarcal. De allí nacerán las primeras experiencias cooperativas, y la diversificación de actividades. Jóvenes de la comarca formados en la Escuela Profesional lideran la comarca.

- **1974. Estudio socio-económico comarcal.** Principales conclusiones: necesidad de creación de nuevas empresas industriales, incorporación de la mujer al trabajo e impulso a la capacitación profesional.

- **1977. Learko (MCC)** nace en el marco de la corporación cooperativa, con dos objetivos principales: consolidación de las cooperativas ya existentes, y plantear la viabilidad de nuevos proyectos.

- **70-90. Crisis internacional.** Esfuerzos centrados a consolidar iniciativas empresariales existentes. Learko consolida su liderazgo en el desarrollo comarcal, impulsando el cooperativismo y también la creación de la Escuela Comarcal de Formación Profesional (1976).

- **1991.** El sistema organizativo de las cooperativas cambia, desapareciendo las estructuras comarcales. La **desaparición de Learko** deja un hueco en el liderazgo necesario para impulsar un desarrollo integral de Lea-Artibai. No hay una visión integral de comarca, ni tampoco responsables que interioricen y redefinan esta vocación.

- **1994. Plan Estratégico Comarcal.** La principal conclusión define la necesidad de diversificar las actividades y de fomentar el emprendizaje.

- **1994. Reflexión estratégica de Lea Artibai Ikastetxea,** entorno a tres ideas: Compromiso con el entorno - referente en determinadas tecnologías - apuesta por la creación de empresas desde la escuela.

- **2001. Lea Artibai Ikastetxea apuesta por la creación de la Fundación Azaro.** Persigue con ello la eficacia, la complementariedad y la búsqueda de sinergias.

## 2. Lea Artibai Ikastetxea: Agente transformador de su entorno

Misión: Ser agente transformador de su entorno, ofreciendo una formación de calidad a sus clientes, manteniendo para ello los contactos e interrelación necesarias con el tejido empresarial del entorno e instituciones. Organización de economía social, basado en la participación de los trabajado-



res y comprometida con la calidad de vida de éstos y en general de los habitantes de la comarca.

### 3. Oferta de Lea Artibai Ikastetxea

Se divide en tres ramas: oferta formativa, oferta de servicios y desarrollo tecnológico y la promoción empresarial (ésta última a través de Azaro Fundazioa).

- **Oferta formativa:** Lea Artibai Ikastetxea ofrece formación en bachilleratos, ciclos formativos de grado medio y superior, y licenciatura en ingeniería de polímeros (en el marco del acuerdo con London Metropolitan University). Además, ofrece cursos de formación continua y cursos del INEM así como del Departamento de Empleo.

- **Oferta de servicios:** Además del servicio de transporte, comedor y residencia para los estudiantes, se cuenta con talleres y aulas de informática equipadas con todo tipo de software. Por otro lado, se cuenta con el servicio de prevención de riesgos laborales, el servicio de orientación e inserción laboral y el departamento de relaciones internacionales.

- **Promoción de empresas y desarrollo tecnológico.** Es el apartado que más nos interesa en esta jornada. Lea Artibai Ikastetxea, como socio fundador de Azaro Fundazioa lleva adelante a través de dicha fundación las labores de promoción empresarial y de mejora de la competitividad de las empresas de la comarca. En el apartado referente al desarrollo tecnológico, como miembro de Saretek, ofrece a las empresas servicios para su diversificación y para la definición de nuevos productos. Se incide especialmente en dos sectores estratégicos: materiales y alimentos. Además, Lea Artibai Ikastetxea ofrece servicios técnicos a empresas.

### 4. Lea-Artibai Ikastetxea - Azaro Fundazioa: impulso a la promoción de nuevas empresas

Azaro Fundazioa es una entidad sin ánimo de lucro, que tiene como misión contribuir a la mejora de la competitividad del tejido empresarial y creación de nuevas empresas en su entorno.

#### 4.1. Principios y ejes de trabajo

- Los ejes del trabajo diario: innovación, captación y transmisión de información y conocimiento, y la prestación de servicios adecuados para impulsar la cultura emprendedora y de innovación en la comarca.
- Aglutina la representación comarcal y es una organización integradora.
- Interviene en la cooperación e intermediación entre todos los agentes implicados en el desarrollo de la comarca.
- Innovación: Vocación de consolidarse como núcleo de competitividad y de innovación en la comarca.
- Tiene como objetivo la prestación de servicios adecuados para impulsar la cultura emprendedora y de innovación en la comarca.

## 4.2. Composición de Azaro Fundazioa

- El **patronato** de la fundación lo componen la escuela Lea Artibai Ikastetxea, la sociedad pública del polígono industrial Okamika Industrialdea SA, el ayuntamiento de Markina-Xemein y la mancomunidad de municipios rurales de Lea Ibarra.
- La **Mesa de Cooperativas**, entrará a formar parte directa del patronato de la fundación en breve plazo. En esta mesa se reúnen nueve cooperativas de Lea-Artibai, otra de la comarca de Busturialdea y la entidad Gaztempresa.
- Para ejecutar las decisiones del patronato y llevar adelante el trabajo diario de la fundación hay un **equipo gestor** que conforman: la secretaria del patronato, técnicos de promoción empresarial, consultores y tutores tecnológicos.
- La mancomunidad de Lea-Artibai es, hasta ahora, colaboradora de la fundación, pero en breve, pasará a formar parte directa del patronato. Otras **entidades colaboradoras** son: la Agencia de Desarrollo de Lea-Artibai, Diputación Foral de Bizkaia, Gobierno Vasco, INEM, Ministerio de Trabajo estatal y Fondo Social Europeo.

## 4.3. Oferta de Azaro Fundazioa

La oferta de la fundación se puede englobar en tres áreas: promoción empresarial, área de empresas y observatorio.

- **Area de promoción empresarial:** servicio integral dirigido a identificar, definir y desarrollar proyectos empresariales, con prioridad para los proyectos de base tecnológica.
- **Area de empresas:** acompañamiento a empresas del entorno en procesos de mejora, innovación y desarrollo.
- Para incidir de manera eficaz en las dos áreas mencionadas, el **observatorio** conlleva una dinámica activa para "adelantarnos" al futuro y transmitir toda esta información al tejido empresarial y a emprendedores.

## 5. Proyecto de futuro: Esperanza 2013. Entorno de innovación y desarrollo para la comarca de Lea-Artibai

Azaro Fundazioa llevó a cabo un proceso de reflexión estratégica en 2006. Como fruto del mismo nació el proyecto que será la hoja de ruta en los próximos siete años: Esperanza 2013.

Su misión es la de contribuir efectivamente al desarrollo tecnológico y a la competitividad de las empresas de los sectores relacionados preferentemente con la actividad de Lea Artibai Ikastetxea, mediante la asimilación y/o desarrollo propio de tecnologías relacionadas, así como la capacitación de profesionales contrastados (incidiendo en la importancia del perfil emprendedor), y creación de nuevas empresas con base tecnológica/innovadores que contribuyan a la consolidación de un nuevo tejido industrial, preferentemente de economía social, en la comarca.

El proyecto Esperanza 2013 **tiene cuatro ejes principales** de trabajo: la persona emprendedora; la investigación y tecnología I+D; formación y servicio integral proactivo, dirigido a la prospección de nuevas oportunidades.

## **5.1. Emprendizaje, innovación y valores cooperativos**

· Siendo conscientes de que son valores que conviene labrar en los centros educativos de la comarca, se ha constituido una mesa de trabajo con los mismos. En primer lugar, se pretende que los estudiantes de E.S.O. conozcan y valoren la comarca, sembrando la implicación futura. Hasta ahora se han hecho visitas a empresas, creación de material didáctico y concursos de ideas.

· En las distintas actividades de Lea Artibai Ikastetxea, pues ahí se halla la cantera de futuros emprendedores.

· En las empresas: Azaro Fundazioa acompaña a las empresas en los procesos de intra-emprendizaje e innovación.

· En la sociedad en general: concienciación y divulgación de cultura emprendedora a través de charlas, jornadas, y la publicación trimestral Hazi.

## **5.2. Investigación y desarrollo - I+D**

Para que la red empresarial de la comarca sea competitiva, es indispensable investigar, dirigiendo la investigación a la identificación de nuevos productos y actividades:

- A través de proyectos de vigilancia tecnológica.
- Doctorados.
- Proyectos internos.
- Proyectos de desarrollo tecnológico con empresas.

## **5.3. Formación para el emprendizaje**

- Escuela de emprendedores.
- Tutorías personalizadas.
- Módulos para profundizar en el perfil emprendedor.
- Postgrados y masters con enfoque de emprendizaje.

## **5.4. Servicio integral de creación y consolidación de empresas**

· Servicio integral en todas las fases: definición de la idea - análisis de mercado - plan de empresa - desarrollo tecnológico - constitución de empresa - seguimiento y consolidación.

## **5.5 Infraestructuras para el proyecto 2013**

- Formación e investigación en la escuela Lea Artibai Ikastetxea.
- Edificio Esperanza: sede de la fundación Azaro, zona tecnológica y vivero de empresas.
- Edificio Azpiri: zona para la consolidación de nuevas empresas.
- Legamin: vivero de empresas de Lea Ibarra.
- Oficinas de la Agencia de Desarrollo de Lea-Artibai en Ondarroa, Markina-Xemein y Lekeitio: ventanillas y puntos de información.

·Elkartegi de Markina-Xemein: zona para emprendores en la fase de análisis de viabilidad.

## **6. Esperanza 2013. Cuantificación de objetivos**

· Se persigue crear 90 empresas hasta 2013: 75% de servicios y 25% industriales. De ellas, 25% de economía social, y 60% de carácter innovador. Un 20% deberían provenir de la investigación interna, y un 30% creadas por promoción propia. Todo esto supondría 500 puestos de trabajo para 2013, con un 50% de empleo femenino.

· 22 proyectos de diversificación.

· Objetivos a nivel universitario para 2013: 120 graduados en ingeniería de polímeros, 120 masters (60 en polímeros y 60 en alimentación), y 18 doctorados (12 en polímeros y 6 en alimentación).

· Otros objetivos en relación con la investigación: publicaciones internacionales, patentes, proyectos de investigación con empresas y proyectos propios de investigación para desarrollo de tecnologías.

## **7. Organización cara al proyecto Esperanza 2013**

· Para organizar eficazmente la investigación para la prospección de nuevas oportunidades de negocio, se ha constituido el grupo de trabajo PROBE, con personas de Lea Artibai Ikastetxea y Azaro Fundazioa (PROduktu BErria=nuevo producto). En su seno, Azaro Fundazioa, ProbeMat (materiales) y ProbElik (alimentación), comparten plan de gestión. Colaboran en la definición y el desarrollo de proyectos empresariales. Asimismo, actúan en coordinación con la mesa de expertos. La agenda del grupo de trabajo PROBE, así como sus resultados, están en continua conexión con la mesa de decisión conformada por Azaro Fundazioa y la escuela.

· Mesa de decisión: Lea Artibai Ikastetxea y Azaro Fundazioa. Como se ha comentado, decide en coordinación con el grupo de trabajo PROBE, con los expertos y con los responsables de cada proyecto.

· Expertos sectoriales y en general. Se toman muy en cuenta, de manera sistemática, las opiniones de agentes comarcales de este tipo. Se sitúan en esta esfera: Mesa para la Innovación de Okamika (polígono industrial que abarca cerca de 40 empresas en la zona rural de Lea Ibarra); Mesa de Cooperativas; Red de Emprendedores; mesa de trabajo para la promoción de la cultura emprendedora, Mesa de Expertos, Mesa de Turismo y mesas de comercio PERCO (Lekeitio, Ondarroa y Markina-Xemein).

### **7.1. Actividad del grupo de trabajo PROBE**

La misión del grupo de trabajo PROBE se refiere a la prospección y a la investigación. Se llevan adelante proyectos de colaboración con empresas para estudios de mercado, vigilancia tecnológica y prospección, en lo referente a las áreas de producto, mercado, tecnología y organización. De esta manera, se enfocan, definen, evalúan y desarrollan nuevas oportunidades. Todo ello se lleva a cabo en colaboración con: las empresas de la comarca, los clusters y asociaciones sectoriales; los otros centros de promoción empresarial y centros

tecnológicos, a través de jornadas técnicas o ferias; análisis de patentes o a través de talleres de creatividad.

En la fase de identificación, se procede a la definición de producto/mercado/tecnología, perfilando la viabilidad tecnológica de la idea, evaluando la idoneidad del grupo promotor, y definiendo el mercado potencial, hasta conseguir confirmar (o descartar) la oportunidad de negocio.

Posteriormente vendría el desarrollo del proyecto, con la preparación-coaching constante del equipo promotor, analizando la viabilidad económica del proyecto, desarrollo del prototipo, plan de empresa, y por fin, la constitución de nueva empresa o actividad y su posterior seguimiento.

## **8. Esperanza 2013. Actividad en 2007**

- 10 estudios de vigilancia generales en las siguientes áreas: polímeros en alimentación / aplicación industrial de materiales biodegradables / aplicaciones de plástico en Japón / medio ambiente: acústica y vibraciones / aplicación del plástico a la construcción / mecanización / turismo / micromanufacturing / POF (plastic optic fibre) / ferrocarril.

- 4 estudios sectoriales de mercados específicos.
- 6 proyectos empresariales.
- 4 proyectos de diversificación con empresas de la comarca.

## **9. Esperanza 2013. Claves del proyecto**

- Personas.
- Colaboración-cooperación-complementariedad público/privada.
- La innovación como una dinámica permanente.
- Cultura emprendedora.
- Compromiso con el desarrollo del entorno.
- Orientación y adecuación a las necesidades y retos de futuro.
- Intermediación eficiente.



# ENPRESA PROIEKTU BERRITZAILE, JASANGARRI ETA KONPETITIBOAK BULTZATZEKO BEHAR DIREN BALIABIDEEN MAPA BERRIA

**Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza  
eta Ekonomia Sustapen Saila**

*JOSE RAMON IPIÑAZAR - [ Saileko Enpresa Sustapeneko zerbitziburua ]*

# MAPA DE RECURSOS PARA LA PROMOCIÓN DE PROYECTOS INNOVADORES, SOSTENIBLES Y COMPETITIVOS

**Departamento de Innovación y Promoción  
Económica de la Diputación Foral de Bizkaia**

*JOSE RAMON IPIÑAZAR [ Jefe del Servicio de Promoción Empresarial ]*



# ENPRESA PROIEKTU BERRITZAILE, JASANGARRI ETA KONPETITIBOAK BULTZATZEKO BEHAR DIREN BALIABIDEEN MAPA BERRIA

## **Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila**

JOSE RAMON IPIÑAZAR - Saileko Enpresa Sustapeneko zerbitziburua

### **1. Hasierako hausnarketak**

· Inguru ekonomikoa asko aldatu da. Gure garapen mailari eusteko nahitaezkoa da berrikuntza sistemaren esfortzu handi bat. Jakintzarekin, kudeaketa egokiarekin, pertsonekin zerikusia duten sistema berritzaileak gero eta gehiago behar dira.

· Enpresa berritzaileak sortzeko gaitasuna da herri batek etorkizunean ongizate maila edukitzeko indikadore garrantzitsuenetakoa

· Euskal Autonomia Erkidegoan GEM Global Entrepreneurship-ek 2006an eginiko ikerketaren emaitzek erakutsi dute hemengo ekintzailetasun jarduera tasa mantendu egiten dela, baina eskasa dela.

· Hurrengo urteetarako, gainera, ekintzailetasun tasa horren aurreikuspena baxua da.

· Sortutako enpresak oportunitatea tarteko sortu dira, premiagatik baino gehiago.

· Ekintzaile profila: 35 urte ingurukoak, %55 gizonetakoak, nagusiki unibertsitate ikasketetatik datozenak.

· Enpresa berriak txikiak dira, eta euren esfortzu nagusia produktu/zerbitzu ezberdinak eskaintzean ipintzen dute.

· Oportunitateen gaineko pertzepzioa baikortasun gutxiagokoa izan da aurreko urteekin alderatuta.

· Negozio planak garatzeko, enpresek gero eta laguntasun gehiago behar dute. Are gehiago negozio berritzaileak direnean, ez baitakite benetan euren merkatuak ze dimentsio duen, finantza arloko premiak norainokoak izango dituen...

· Enpresa martxan ipintzeko orduan jasotako laguntzak oso positiboki baloratzen dituzte.

· Finantzazio moduetan aldaketak ematen ari dira: gero eta pisu handiagoa dute familia eta lagunartekoen finantzazioak. Business angel figura, herri anglosaxoietan oso errotua dagoena, oraindik urria da hemen.

· Enpresa berritzaileak merkatura egokitu eta finkatzeko epea 4-6 urtekoa izaten da.

### **2. Sailaren misioa eta helburuak**

Bizkaian enplegua eta aberastasuna sortzen laguntzea da Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailaren misioa. Beraz, kontuan hartuta etorkizunean lehiakortasuna enpresen izaera berritzailearekin lotuta bermatuko dela, Sailak guztiz laguntzen ditu izaera berritzailea duten enpresa proiektuak. Prozesu osoan laguntzen ditu, ideiatik hasita martxan hasi eta finkatzerainoko bidean.



Motibazioa (ekintzailetasun kulturaren sustapena); formakuntza eta definizioa egiten laguntzen da programa batzuen bidez: sustatzaile taldeentzako aurre-inkubazioa. Enpresaren eraketaren ostean, berriz, enpresari lehen bultzada ematen eta garatzen ere laguntzeko tresnak ditu, enpresen inkubazioan eraginez.

Hala eta ere, oraindik ere proiektu berritzaile gutxi sortzen direla uste du Saileko ordezkariak.

### **3. Berrikuntza kontzeptua**

Berrikuntza kontzeptu global modura ulertzen da. Beraz, enpresaren alor guztiei dagokie: produktu berrien garapena, teknologia berriak, kudeaketarako metodo berriak, merkaturatzea...

Jakintzan oinarrituriko enpresa berriak izango dira gure lurraldearen lehiakortasunaren ardatz nagusia, eta beraz, aberastasun eta enplegu sorkuntzaren iturburu nagusia.

### **4. Laguntzeko tresnak**

#### **4.1. Sustatu: programa**

Enpresa berritzaileen sustapenean laguntzeko Sailaren programa da. Hiru modutara eratuta dago:

- Bideberri.- enpresa proiektu berritzaileak abian ipintzeko.
- Kide.- sortu berriak diren enpresa berritzaileei laguntzeko.
- Beaz mintegia.- enpresa berritzaile berrientzako kokapena.

#### **4.2. Sozietate publikoak**

- BEAZ: Bizkaia osoan du jarduera eremua.
- CEDEMI: Aldundiaren eta Jaurlaritzaren artean eratutako zentroaren jarduera eremua Nerbioi Ezkerraldea da.
- Seed Capital, arrisku kapitalerako sozietatea, Bizkaia osoan diharduena, sortzen diren negozioetan partaidetza kapital bitartez.

### **5. Sustatu programa**

Enpresa berritzaile berrien sustapenean prozesu osoan laguntzen duen programa da. Hona hemen bere lan-ildoak:

#### **5.1. Negozio-idea berritzaileen sorkuntza lagundu**

Hauxe da Sailak egiten duen lanaren atalik berriena eta, Ipiñazarren esanetan, beharrezkoena: "Ideiak bilatzen, aprobak egiten, denbora eta energia asko inbertitu behar da, eta horretan Sailak zeregin garrantzitsua edukiko du".

Lan-ildo honen barruan honako elementuak sartzen dira:

- Ekintzaitasun kultura bultzatu.
- Komunitate zientifikoa eta ikerketa gaitasuna sendotu, eta berrikuntza sistemako eragileen arteko lankidetzak erraztu:
  - Deusto Fundazioarekin eta EHU-UPVrekin lankidetzak hitzarmenak eta Unibertsitateko Enpresa Mintegia, Zitek.
  - Zentro teknologikoekiko lankidetzak: Teknalia, Biokabi (inkubategi bioteknologikoa), eta Azaro Fundazioa (Esperanza 2013 proiektua).
  - Aukera berriak izan daitezkeen alor edo sektoreen gaineko identifikazio eta informazioa.
- Lehendik dauden enpresei jarduerak dibertsifikatzeko laguntza eman.

## **5.2. Negozio plan berritzaileak definitzen lagundu**

- Sustatu Bideberri programaren laguntza ekonomikoak.
- Laguntza eta aholku espezializatu zerbitzuak.
- Negozio planak garatzeko gune fisikoa eskaini.

## **5.3. Enpresa berritzaileak martxan ipintzen lagundu**

- Martxan jartzeko tramiteak egiteko laguntza.
- Negozioari lehen bultzada faserako aholkularitza.
- Martxan jartzeko laguntza ekonomikoak: Sustatu Kide.
- Kokapenerako laguntza.
- Arrisku kapitalaren partaidetza erraztu.
- Arlo fiskalerako eta administrazio tramiteetarako aholkularitza.

## **5.4. Enpresa berritzaile berriak finkatzeko eta garatzeko laguntzak**

- Kontsolidazio faserako aholkularitza.
El programa INNoVaNDiS, en esta primera fase, busca promover el cambio cultural; queremos promover el perfil emprendedor-innovador en nuestros alumnos. Para conseguirlo, intentamos combinar la práctica, el desarrollo de proyectos y varias formaciones complementarias. Para los alumnos la propia experiencia que viven durante esos tres años en el programa es casi tanto o más importante que los contenidos propiamente dichos que reciben. Ellos interiorizan los valores que se transmiten ahí, y eso es lo más importante: el compromiso, la generosidad —que no se trata sólo de recibir, sino también de dar—, etc.

### **4. Orain arteko lorpenak zeintzuk izan dira? Eta hurrengo erronkak?** **¿Cuáles han sido vuestros logros hasta el momento? ¿Y cuáles son los retos?**

Lehenengoa, programa egin ahal izatea, hori bera erronka handia zelako. Holako esperientzia handia duen unibertsitate batean horrelako aldaketa bat lortzeak bere denbora eroan du. Hiru urte daramatzagu lanean, eta 80 ikasle dauzkagu programa honetan lanean. Batzuk iada fakultate kanpo, eta beste batzuk fakultatean. Programa hau ez baita bukatzen karrera amaitzearekin; betirako da. Nahi duguna aldaketa kulturala delako, eta hori gertatuko da benetan sare hori ixten dugun momentuan. Hau da, egongo dira graduatuta dauden zenbait enpresari edo zuzendaritzetako kide, ekintzailetasunaz eta berrikuntzaz jakin-min hau daukatenak, eta gainera, ematearen garrantzia barneratuta daukatenak... Orduan, espero dugu berriro unibertsitate etorriko direla, gazte belaunaldiekin elkarlana egiteko eta enpresa berriak sortzeko. Hori dena lortzearekin batera, bigarren fase batean, kultura aldaketarekin batera azpiegitura bat sortu nahiko genuke: gune bat ideia berriak dituztenek euren ideia horiek martxan jarri ahal izateko. Horrela lortuko genuke gizarteak eta enpresek unibertsitatea ikustea balorea aportatzen duen zerbait bezala, baita berrikuntza eta ekintzailetasun kulturari dagokionez ere.

El primer logro ha sido poder llevar adelante el programa, porque constituía un reto en sí. Ha llevado su tiempo conseguir un cambio así en una universidad de experiencia tan dilatada. Llevamos tres años trabajando, y tenemos 80 alumnos en el programa. Algunos ya están fuera de la facultad, y otros siguen estudiando. El programa no finaliza al acabar la carrera; es para siempre. Y ello



es así porque perseguimos el cambio cultural, y éste se dará de verdad en el momento en que consigamos cerrar la red. Es decir, habrá empresari@s, o directiv@s que se hayan graduado, pasando por el programa, que tendrán esta inquietud por el emprendizaje y la innovación, y además habrán interiorizado la importancia de dar, de compartir... Y entonces, esperamos que volverán a la universidad, a colaborar con los jóvenes y crear nuevas empresas. Junto a todo ello, en una segunda fase, queremos, además del cambio cultural, crear una infraestructura adecuada para ese objetivo: un lugar para que aquellos que tengan nuevas ideas puedan ponerlas en marcha. Así conseguiremos que tanto la sociedad como las empresas vean la universidad como algo que aporta valor, también a nivel de emprendizaje e innovación.





**ALAIN DORISON**  
**L'Ecole de Mines d'Ales**

### **1. Zelan sortu zen Ales-eko Meatzetako Eskolaren 'Inkubagailua'? Zein da bere misioa?**

**¿Cómo nació la 'Incubadora' de la Escuela de Minas de Ales? ¿Cuál es su misión?**

Orain dela 27 urte sortu zen proiektua. Garai hartan Ales-eko meatzeak ixten ari ziren, eta tokiko agintariek eskatu ziguten Eskola bezala zerbait egitea bertako garapen ekonomikoaren alde.

El proyecto nació hace 27 años. En aquella época estaban cerrando las minas de Ales, y las autoridades locales nos pidieron que hiciéramos algo por el desarrollo económico de la comarca.

### **2. Zelan lortzen dituzue hainbeste ekintzaile urterik urte? Zein da zuen arrakastaren giltza?**

**¿Cómo conseguís tantos emprendedores cada año? ¿Cuál es la clave de vuestro éxito?**

Proiektu teknologikoen sustapenean legitimitate handia daukagu, gure ikerketa zentroak oso ohituta daudelako enpresa txikiekin lan egiten. Horregatik, oso erraza da eurentzako enpresa sustatzaileekin lana egitea. Arrakastaren giltza da, baita ere, eskolak borondate etengabekoa daukala ekintzaileak izan daitezkeen eskolaren zigilu edo ezaugarria.

Contamos con una gran legitimidad en la promoción de proyectos tecnológicos, porque nuestros centros tecnológicos están muy acostumbrados a trabajar con pequeñas empresas. Por eso, es muy fácil para ellos trabajar con emprendedores. Otra clave para el éxito es la continua voluntad de la escuela para que los emprendedores sean el sello o característica principal de la misma.

### **3. Enpresen barne-ekintzailetasunaren erronkaren aurrean zelan kokatzen zarete?**

**¿Cómo os situáis ante el reto del intra-empresarial?**

Gai honetan ere egiten dugu lana. Orain egin duguna da enpresei sentsibilizaziozko mintegi bat egitea proposatu. Astebeteko mintegia da, eta bertan enpresa berri baten sorrera simulatu dezakete. Oso interesgarria deritzot horri. Badaude inkubagailutik ateratako ekintzaile batzuk ere mintegi horretan.

También trabajamos en ese tema. Hemos propuesto a las empresas un seminario de sensibilización. Es un seminario que dura una semana, y allí se puede simular la creación de una nueva empresa. Es muy interesante. En ese seminario también hay emprendedores que han salido de la incubadora.

#### 4. Etorkizunera begira zeintzuk izango dira zuen lan ildo nagusiak? ¿Cuáles serán vuestras líneas de trabajo en el futuro?

Formakuntza, inkubategia, ikerketa eta garapen ekonomikoaren arteko harremana sakontzea da gure erronka nagusia. Inkubategia da eskolaren berrikuntza-galdara nagusia. Galdarak ondo definitzen du gure funtzionamendua: borrorrean dago, etengabeko mugimenduan.

Nuestro principal reto será profundizar en la relación entre la formación, la incubadora, la investigación y el desarrollo económico. La incubadora es la caldera principal de innovación de la escuela. El término de caldera define nuestro funcionamiento: está hirviendo, en constante ebullición.







**XABIER MAS** (Ripoll, 1951)

**Centre d'Iniciatives Empresarials dels Metalls – Fundació Eduard Soler**

## **1. Fundazioaren eta Centre d'Iniciatives-en historia apur bat laburtuko bazenigu. Nola sortu zen proiektua eta zein misioekin?**

**¿Podrías resumir la historia de la Fundación y del Centre d'Iniciatives?  
¿Cómo surgieron, con qué misión?**

Proiektu hau Soler jaunaren bizitzaren azken aldian sortu zen; orduan berak planteatu zuen zer edo zelan esateko "gazta amaitzen ari zela", gauzak aldatzen ari zirela, eta Katalunia aldaketa horietarako prestatu beharra zegoela. Orduan erabaki zuen bere ondasun guztiak Fundazio baten sorrerara bideratzea. 1996a zen, eta aurreikusten zen trauma ekonomikoa —ehungintza enpresen krisiagatik—, leuntzea zen helburua. Hezkuntza zentro bat sortu zen, mekanika, elektrizitatea eta elektronikako zikloak ematen zituenena. Zentro honen helburuetako bat ekintzaitasun kultura sustatzea zen, hasieratik. Funtzionamendua ona izan zen, arrakastatsua izango nuke, eta hortik eratorri zen Centre d'Iniciatives Empresariales sortzeko ideia.

Este proyecto nació en los últimos años de vida del señor Soler; entonces él se planteó que "el queso se estaba acabando", que las cosas estaban cambiando, y que en Catalunya había que prepararse para esos cambios. Decidió destinar todo su patrimonio a la constitución de una fundación. Era el año 1996, y el objetivo era suavizar o encauzar el trauma económico que se preveía —por la crisis de las empresas textiles—. Nació así un centro de formación que impartía ciclos de mecánica, electricidad y electrónica. Desde el comienzo, uno de los objetivos del centro fue fomentar la cultura emprendedora. Su funcionamiento fue bueno, exitoso diría yo, y de ahí derivó la idea de crear el Centre d'Iniciatives Empresariales.

## **2. Ekintzaileak gero eta gutxiago izan arren, urtero hainbat lortzen dituzue eta enpresa proiektuen kopurua oso esanguratsua da.**

**Aunq los emprendores hayan disminuido en general, cada año conseguís un número muy considerable de proyectos empresariales.**

Pozik gaude emaitzekin, bai, baina apaltasunez. Izan ere, badaude beste zentro batzuk askoz baliabide gehiago inbertitzen dutenak, lurralde askoz zabala goa bere baitan hartzen dutenak... Gure fundazioari kritikatzeko zaion gauzeta ko bat gure lan eremuaren txikitasuna da; "zuen esfortzua hain biztanle gutxi ko eremurako...", esaten digute. Baina horixe —Ripoll eskualdea— da gure eremua, gure lurraldea. Gu ez goaz Barzelonan inplantatzera.

Estamos contentos con los resultados, sí, pero con modestia. Hay otros centros que cuentan con más recursos, invierten más, abarcan un territorio mucho más amplio... Una de las cuestiones que se le critican a nuestra fundación es, precisamente, nuestra reducida área de trabajo; "todo vuestro esfuerzo para

una zona con tan pocos habitantes...", nos critican. Pero la comarca de Ripoll es nuestro territorio. No vamos a implantarnos en Barcelona.

### **3. Hala ere, ekintzailetasun ekimena daukaten pertsonak aurkitzea oso zaila da gaur egun... Zeintzuk dira zuen arrakastaren klabeak?**

**Sin embargo, hoy en día es difícil encontrar personas con iniciativa emprendedora... ¿Cuáles son las claves para vuestro éxito?**

Ez da bat ere erraza. Hori lortzeko gure giltzarria lana ondo egitean datza, prestigio bat sortzen joan da urteekin. Horrekin batera, Kataluniako nazio eremuan ekintzaileen kaptaziorako estrategia egokiak lantzen saiatzen gara. Astebururo gure zentrorra etortzen dira Tarragonatik, baita urrunagotik ere, Ebroko lurraldeetatik... Konpromisoa eta ondo egitea, horiek dira klabeak nire ustez. Izan ere, gaur egun irakaskuntzan, nagusiki, irakasleak hezitzaile izate-tik komediantek izatera pasa dira —ikasleek ondo pasa dezaten egiten dute lana—... Hortik irtetzen den giroa ez-esfortzuaren aldekoa da, gazteek funtzionario izan nahi dute. Horren kontra, Soler jauna esfortzuaren kulturako gizona zen, eta hortik doa gure ahalegina: esfortzua egiten duen jendeari laguntzen diogu, asko lagundu ere.

No es nada fácil. Nuestra clave para conseguirlo está en el buen trabajo, y se ha ido creando un prestigio con los años. Paralelamente, intentamos trabajar estrategias adecuadas para la captación de emprendedores en el ámbito nacional de Catalunya. Todos los fines de semana vienen hasta nuestro centro desde Tarragona, desde aún más lejos, de las tierras del Ebro... El compromiso y hacerlo bien, ésas son las claves a mi entender. Y es que en la enseñanza hoy en día, en su mayor parte, el profesorado ha pasado a ser comediante —trabajan para que los alumnos se lo pasen bien—... El ambiente que se deriva es el del no-esfuerzo; los jóvenes quieren ser funcionarios. Por el contrario, Eduard Soler era un hombre de la cultura del esfuerzo, y nuestro empeño va por ahí: ayudamos, y mucho, a la gente que se esfuerza.

### **4. Barne-ekintzailetasuna sustatzeko premiaren aurrean, nola kokatzen zarete?**

**¿Cómo os situáis ante el reto del intra-emprendizaje?**

Hasten ari gara, baina gure ikuspegia apur bat desberdina da: ekintzailetasuna eta berrikuntza pertsona guztiei itsatsita egon behar duten bi kontzeptu dira. Ez bagara gai gure gazteengan kultura sustatzailea eta berritzailea eragiteko, euren bizitza pribatuan ere gaizki ibiliko dira. Ekintzailea, berritzailea izan beharra dago familian, bikotean, seme-alabekin, edonon..., eta baita enpresan ere. Barne-ekintzailetasunak, gure ustez, misio garrantzitsua dauka enpresen prozesu produktiboen garapenean. Orain arte lan-ildo hori landu dugu: beharginaren jarrera ekintzailea sustatzen lantegi barruan, bere inguruan, bere familian eta gizartean. Konpromiso soziala sustatu beharra ere lehentasun modura ikusten dugu.



Estamos empezando, pero nuestra perspectiva es algo diferente: el emprendizaje y la innovación son dos conceptos que deberían ser intrínsecos a todas las personas. Si no somos capaces de infundir cultura innovadora y emprendedora en nuestros jóvenes, también irán mal en sus vidas privadas. Se trata de ser emprendedor e innovador en la familia, en la pareja, con los hijos, en todas partes..., y también en la empresa. El intra-emprendizaje, en nuestra opinión, tiene una importante misión en el desarrollo de los procesos productivos de las empresas. Hasta ahora hemos trabajado sobre esa línea: fomentando la actitud emprendedora de la persona trabajadora dentro de la empresa, en su entorno, en la familia y en la sociedad. También vemos prioritaria la promoción del compromiso social.

### **5. Vila Icaria proiektua daukazue esku artean. Kontaiguzu. Tenéis entre manos el proyecto Vila Icaria. Cuéntanos.**

Vila Icaria ekintzailetasun eta berrikuntza oasi bat izatea nahi dugu. Gune bat non ekintzaileak batuko diren lanean, talde lanaren sinergiak aprobetxatzeko; nahiz eta enpresa oso desberdinak aterako diren hortik. Berrikuntza eta ekintzailetasun cluster bat sortzeko ahaleginean gabilta; eta horregatik eraikin handi-handi baten eraikuntzan dihardugu. Hor bilduko dira ekintzaileen etxebizitzak, espazio komunak... egingo dugun esfortzuarri ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Apal hasiko gara, Soler jaunak esaten zuen bezala, esperimentuak txubaskeroagaz, etxe barruan eta atea itxita ixil-ixilik, badaezpada ere...

Queremos que Vila Icaria sea un oasis de emprendizaje e innovación. Un lugar donde las personas emprendedoras se unirán para trabajar conjuntamente y aprovechar sinergias, aunque de ahí surjan empresas bien diferentes. Estamos intentando crear un cluster de innovación y emprendizaje; y por eso estamos construyendo un gran edificio que abarque viviendas para los emprendedores, espacios comunes... para sacar el máximo beneficio de nuestro esfuerzo. Empezaremos modestamente y con discreción. Como solía decir el señor Soler, los experimentos deben hacerse dentro de casa y con la puerta cerrada, con chubasquero y callandito...

### **6. Nola ikusiko zenuke ekintzailetasunean diharduzuen lurralde ezberdinetako eragileen arteko sare egituraren bat sortzea?**

**¿Cómo veríais la posibilidad de crear una red de colaboración entre agentes que trabajan el tema del emprendizaje en distintos territorios?**

Ondo ikusiko nuke, nahiz eta proiektu desberdinak izan. Gure proiektua, zehazki, eskuzabaltasunetik jaiotakoa da; eta beraz, gure lehen hitza eta azkena holako ekimenen aurrean da "bai".

Lo vería bien, aunque sean proyectos diferentes. Nuestro proyecto, en concreto, nació de la generosidad; y por tanto, nuestra primera y nuestra última palabra ante iniciativas como esa es "sí".



**IDURRE ARZUAGA**

**Seed Capital Bizkaia sozietatea**

**JOSE RAMON IPIÑAZAR**

**Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Saila**

## **1. Bizkaiko Foru Aldundia zelan kokatzen da enpresa berrien sorrerak eta berrikuntzak gaur egun planteatzen dituen premien aurrean? Zein da Aldundiaren papera?**

**¿Cómo se sitúa la Diputación Foral de Bizkaia ante los retos que plantean hoy en día la creación de empresas y la innovación? ¿Cuál es el papel de la Diputación?**

**JOSE RAMÓN IPIÑAZAR** ▶ Departamendua hurrengo agintaldirako oinarritzko estrategia diseinatzen ari da —2007ko ekainean abiatu da agintaldia—. Zutabe modura berrikuntza hartu dugu; bai martxan dauden enpresetan, eta baita enpresa berrien sorrerari begira ere. Horretarako hainbat ekintza lerro desberdin daroaguz aurrera. Enpresa berrien sorrerara enfokatuta Sustatu programa dago, diru laguntza ematen duena, baina baita ere bestelako laguntza CEI edo Enpresen Berrikuntza Guneen bitartez. 'Sustatu bideberri' deritzon lerroak enpresa proiektu fasean dagoenean laguntzen dio ekintzaileari; eta enpresa eratuta dagoenean 'Sustatu kide' programatik. Bestetik, hiru elkarte ditu misio horri ekiteko: bata BEAZ da, Bizkaia osoan enpresa proiektuak behar den moduan laguntzen eta martxan ipintzen diharduena. Bestea CEDEMI da, zeregin bera daukana, baina Nerbioi Ezkerraldean diharduena. Eta hirugarrena Seed Capital elkarte da, arrisku kapitala kudeatzen duena herrialde osoan. Hori guzti hori enpresa proiektu bat dagoenean martxan ipintzen laguntzera bideratuta dago; baina, orain beste bideren bat landu nahian gabilta, proiektu gehiago egon daitezen, ideiak sortarazteko, eta ezagutza dagoen guneetatik enpresa bilakatzeko bidea errazteko. Hori izango da hurrengo garaietan lan ildo inportanteenetakoa nire ustez.

El Departamento está diseñando la estrategia básica para esta legislatura que se inició en junio de 2007. Hemos tomado la innovación como eje principal; tanto en las empresas ya consolidadas, como cara a la creación de nuevas empresas. Llevamos adelante varias líneas de trabajo con ese objetivo. Tenemos el programa 'Sustatu', enfocado a la creación de nuevas empresas, con subvenciones y otro tipo de apoyo a través de los centros CEI. La línea 'Sustatu bideberri' apoya al emprendedor cuando la empresa está en fase de proyecto; y cuando la empresa está constituida, se hace a través del programa 'Sustatu kide'. Por otro lado, cuenta con tres sociedades para abordar esa misión: una es BEAZ, que se dedica a apoyar adecuadamente a los proyectos empresariales en el ámbito de Bizkaia. Por otro lado está CEDEMI, que tiene la misma misión pero su ámbito de trabajo es la margen izquierda del Nervión. Y la tercera es Seed Capital, que gestiona capital riesgo en toda Bizkaia. Todo ello está destinado a apoyar la creación de nuevas empresas; pero, ahora estamos intentando trabajar sobre otra línea para la creación de ideas, parra que haya más proyectos, y facilitar el camino desde las zonas de conocimiento hasta las empresas. Esa será una línea de trabajo principal en los próximos tiempos.

## **2. Baliabide mapa horren barruan zein da zehazki Seed Capitalen papera? ¿Cuál es el papel de Seed Capital dentro de ese mapa de recursos?**

**IDURRE ARZUAGA** ▶ Behin enpresa bat eratu denean —normalean BEAZetik pasatu diren proiektuak dira, baina ez dauka zertan horrela izan—, behar duen dirua ematen diogu, berak daukan espantsio plana bultzatzeko. Gu ez gara mailegu-emaileak banketxe baten moduan, guk egiten duguna da kapitalaren barruan sartu, eta kapital barruan bazkide moduan plan hori betetzen ere lagundu. Dirua huts-hutsean eman barik, laguntza ere ematen dugu. Enpresaren jarduera zein den, eta enpresa bera zelakoa den arabera, Seed Capital partaidetza horretan egoten da 5-7 urtez, bataz beste.

Cuando se constituye una empresa —normalmente son proyectos que han pasado por BEAZ, pero no tiene por qué ser así—, la dotamos del dinero necesario para su plan de expansión. No somos prestamistas como lo sería un banco; lo que hacemos es entrar a formar parte del capital de la empresa, y como socios, apoyar el cumplimiento del plan de negocio. En lugar de dar el dinero sin más, damos también apoyo. Dependiendo de la actividad de la empresa y sus características, Seed Capital suele permanecer como socio durante 5-7 años como media.

## **3. Oinarri teknologiko handia duten enpresak sortzeak, sarri, inbertsio handiak egitea eskatzen du. Finantzazio mapan agente berriak agertuko al dira? Zelakoak?**

**La creación de empresas con una fuerte base tecnológica precisa de grandes inversiones. ¿Qué agentes habrá para ello en el mapa de recursos financieros?**

**IDURRE ARZUAGA** ▶ Finantza agente pribatuak ere egoten dira. Horiek gainera, nahiago izaten dute zenbat eta arrisku handiagoko enpresa izan, etekinak ere handiagoak izaten direlako. Bussines angels deitzen direnak, negozioen mezenak bezalakoak ere hor daude... Baina ez dira, oraingoz, oso ezagunak.

También hay agentes financieros privados. Además, esos agentes prefieren empresas de alto riesgo; porque cuanto mayor es el riesgo, mayores son los beneficios. También están ahí los bussines angels o mecenas de los negocios... Pero no son, por ahora, muy conocidos.

## **4. Seed Capitalen hurrengo lan lerroak edo erronka nagusiak zeintzuk dira? ¿Cuáles serán los próximos retos de Seed Capital?**

**IDURRE ARZUAGA** ▶ Guk ez dugu aldaketa handirik edukiko. Gure misioa enpresa berritzaileei laguntzea da, eta hori izango da aurrerantzean ere. Berrikuntza diru funts berri batean daukagu, tamaina handiagoko proiektuentzat. Orain arte 255.000 eurora arteko inbertsioa eskatzen zuten proiektuak onartzen genituen gehienez ere. Baina, badaude enpresa batzuk, batik bat energiaren sektorean-eta, askoz ere behar handiagoak dituztenak. Bigarren funts horregaz horra ailegatu nahi dugu.

No tendremos grandes cambios. Nuestra misión es ayudar a las empresas innovadoras, y seguirá siéndolo en el futuro. La novedad es un nuevo fondo, para proyectos de mayor envergadura. Hasta ahora colaborábamos con proyectos que precisaban de una inversión tope de 255.000 euros. Pero hay empresas, sobre todo en el sector de la energía, que tienen unas necesidades mucho más potentes. Ahí es donde queremos llegar con el nuevo fondo.

## **5. Barne-ekintzailetasunari bideratutako baliabiderik badaukazue edo sortuko duzue?**

### **¿Contáis o contaréis con recursos destinados al intra-emprendizaje?**

**JOSE RAMÓN IPIÑAZAR** ▶ Adituek diote proiektu berrien harrobi garrantzitsuena enpresen barruan dagoela. Eta guk hola espero dugu izatea. Ikusten hasi gara, behintzat, enpresa talde handietan hasi direla sistematikoki euren produktuak berriztatzen ez eze, nitxo berriak eta jarduera berriak bilatzen ere. Prozesu hori orain enpresa handietan hasi da eta apurka erdi mailakoetara ere ailegatuko dela uste dut. Gure sailetik, hasteko, kontaktu sare bat eratu dugu, behintzat enpresa talde nagusietan zertan dabiltzan jakiteko. Zirriborro bat ere landu dugu, diruz eta tutorizazioz laguntzeko barne-ekintzailetasunaren lehenengo fasea: lehenengo bilaketak edo prospekzio lanak, jarduera aukera berriak ikertzeko. Lehen epe horrek lan eta diru asko suposatzen du, askotan emaitza handirik barik. Uste dut 2008an esperientzia pilotoren bat ipiniko dugula mar-txan zentzu horretan.

Los expertos opinan que el principal nicho de nuevos proyectos se halla en las propias empresas. Y nosotros esperamos que así sea. Estamos observando que, al menos en las grandes empresas, ya han empezado sistemáticamente, no sólo a renovar sus productos, sino también en la búsqueda de nuevos nichos de negocio y nuevas actividades. Dicho proceso ha comenzado en las grandes empresas, y creo que irá llegando también a las medianas. Desde nuestro departamento, para empezar, hemos elaborado una red de contactos, para saber qué están llevando adelante en los grandes grupos de empresas. Asimismo, hemos elaborado un borrador de ayudas financieras y de tutorización para colaborar en la primera fase de los proyectos de intra-emprendizaje; esto es, los primeros trabajos de prospección y búsqueda para investigar nuevas oportunidades de negocio. Esa primera fase precisa de mucho esfuerzo y dinero, a menudo sin grandes resultados. Creo que en 2008 pondremos en marcha alguna experiencia piloto en ese sentido.



**AINARA BASURKO** (Ondarroa, 1972)  
**Azaro Fundazioa**

## **1. Lea Artibai Ikastetxearen eta Azaro Fundazioaren historia laburbilduko al zeniguke? Nola sortu ziren proiektuok eta zein misiorekin?**

**¿Cómo resumirías la historia de Lea Artibai Ikastetxea y de la Fundación Azaro? ¿Cómo surgieron estos proyectos y cuál es su misión?**

Lea Artibai Ikastetxea bera orain dela 30 urte sortu zen. Arinago, orain dela 50 urte, Eskola Parrokiala sortu zen. Orain dela 30 urtekora joanda, eskualdeko kooperatibek sortu zuten ikastetxea, eurentzako pertsonal kualifikatua prestatzeko. Baina ez horretarako bakarrik; hasieratik eman nahi izan zioten beste misio bat: garapen ekonomikorako agente bat izatea eskualdean, enpresa berrien sorreran ere eragingo zuena. Misio hori, garaien gorabeherekin ere, beti eduki du errotuta. Batez ere 90eko hamarkadan, Europako diru funts bartzuekin lotuta, buru-belarri murgildu zen enpresa proiektu berrien sorrera bultzatzen, bertako tailerretan eta ikasgeletan. 1997an Markina-Xemeingo Udalagaz batera Esperanza eraikina erosi zuen, enpresa bera itxi eta Ogasun Sailak eskuratu ostean enkantera atera zenean. Eraikin hauxe hasi ziren eraikitzen enpresa haztegi modura. Esperanza lantegia itxieran lanpostu asko galdu ziren hemen, eta helburua zen gerora horiek eta gehiago sortzeko gunea izatea eraikin hau berau. Beraz, enpresen sorreran batik bat oso aktibo ibili zen Ikastetxea 90eko hamarkadan, baina horrek berak nahaste handia ekarri zion, ze azkenean jarduera desberdin asko eroan behar zituen aurrera eskola barruan, akademikoaz gain. Koste ekonomikoa ere handia zeukan, eta argi ikusten zen ere, enpresen sustapena ez zela bakarrik egin behar zuen gauza bat, eskualdeko erakundeak ere inplikatu egin behar zirela.

La escuela Lea Artibai Ikastetxea nació hace 30 años. Anteriormente, hace 50 años, había comenzado su andadura la Escuela Parroquial. Yendo al hito de hace 30 años, cabe subrayar que fueron las cooperativas de la comarca las que pusieron en marcha la renovada escuela, para preparar personal cualificado para las mismas. Pero no sólo para eso; quisieron dotarle, desde un principio, de otra misión: ser un agente para el desarrollo económico de la comarca, que incidiera también en la creación de nuevas empresas. Con el paso de los tiempos, ha mantenido esa misión. Sobre todo en la década de los 90, en conexión con fondos europeos, se sumergió de lleno en la promoción de nuevos proyec-

tos empresariales desde sus aulas y talleres. En 1997, junto con el ayuntamiento de Markina-Xemein, adquirió el edificio Esperanza, en el momento en que dicha empresa cerró definitivamente, siendo subastada por el Departamento Foral de Hacienda. Comenzaron a emplear este edificio como vivero de nuevas empresas. Se habían perdido muchos empleos al cerrar la fábrica Esperanza, y el objetivo era que el mismo edificio albergara la creación de otros tantos empleos o más. Por lo tanto, Lea Artibai Ikastetxea fue un agente muy activo, sobre todo en la década de los 90; pero eso mismo le conllevó problemas de funcionamiento, pues al final, además de la actividad académica debía llevar adelante muchas y muy diversas actividades de promoción y tutorización. También tenía un coste económico muy importante. Además se constataba que la promoción de nuevas empresas no era una cuestión para realizarla a solas, sino con la implicación de las instituciones de la comarca.

## **2. Eta horrela sortu zen Fundazioaren ideia? ¿Y así surgió la idea de la Fundación?**

Bai, eta zorionez 2001ean lortu zuen Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa, Okamikako Industrialdea eta Markina-Xemeingo Udala proiektura biltzea, eta horrela sortu zen Azaro Fundazioa. Hasiera-hasieratik misio argi bat dauka: eskualdearen garapen ekonomikoaren alde lan egitea, batez ere bi eremutik; alde batetik enpresa berriak sortzen, eta bestetik, dauden enpresei lehiakorragoak izaten laguntzen.

Sí, así fue, y en 2001 la Mancomunidad de Municipios de Lea Ibarra, el polígono industrial Okamika Industrialdea y el ayuntamiento de Markina-Xemein se unieron al proyecto, constituyéndose en socios fundadores de Azaro, junto con la escuela Lea Artibai Ikastetxea. Tiene una misión principal desde un principio: trabajar en pro del desarrollo económico de la comarca, sobre todo desde dos ámbitos; por una lado, en la creación de nuevas empresas, y por otro, apoyando a las empresas ya existentes para ser más competitivas.

## **3. Ia sei urteko ibilbide horretan zein hito azpimarratuko zenituzke balantzea egiteko?**

### **¿Qué hitos destacarías en esa trayectoria de seis años?**

Balantzea egiteko, lehenengo eta bat, azpimarratuko nuke Azaro Fundazioaren onarpena eta babesa zabaltzen joan dela eskualdean. Hasierako fundatzaileak lehen aitatutakoak dira, eta orain momentuan, Lea Artibaiko Amankomunazgoa ere patronatuko kide izateko tramiteetan dabil; eskualdez kanpo Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako sail desberdinek hainbat programaren bidez



babes garrantzitsua ematen diote Azarori. Gero, gutxika-gutxika, beste eragile klabe bat joan da inplikatzeko Azaron: enpresak eurak. Lehenengo, kooperatibekin hasi ginen, batez ere, eskualdeko handienekin, proiektu zehatz baten inguruan: elkarregaz lan egin beste kooperatiba batzuen sorrera bultzatzeko. Gaur da eguna kooperatibok Azaroren patronatuan sartuko direna zuzenean.

A la hora de hacer un balance, en primer lugar destacaría el nivel de aceptación que ha ido consiguiendo Azaro Fundazioa en la comarca. Los socios fundadores son los mencionados anteriormente, y en este momento, también la Mancomunidad de Lea Artibai está tramitando su entrada en la fundación como socio. Instituciones supracomarcales, como la Diputación Foral de Bizkaia o varios departamentos del Gobierno Vasco, dan un apoyo importante a Azaro a través de diversos programas. Poco a poco, otro agente clave ha ido implicándose en las labores de la fundación: las propias empresas. En un primer momento comenzamos con las cooperativas, sobre todo con las mayores de la comarca, entorno a un proyecto concreto: trabajar conjuntamente para promover la creación de nuevas cooperativas. Ahora se va a dar otro paso en la misma dirección: las cooperativas pasarán a formar parte directamente en el patronato de la fundación.

#### **4. Fundazioa bera errotzen eta sendotzen doa beraz. Eta bere jarduerari buruz zelako balantzea egingo zenuke?**

**Por lo tanto la Fundación va fortaleciéndose. ¿Qué balance harías sobre sus actividades?**

Hasieran sustatzailea etortzeko zain egoten ginen; hori baliabideen arabera ere bazen, gutxiago ginen, eta zetozenak laguntzen genituen. Baina gero ikusi genuen, batik bat enpresa berritzaileak nahi baziren sortu, zer edo zelako edukin teknologikoa zeukatenak, eskolaren azpiegituren babesaz gain, gu geu askoz ere proaktiboagoak izan behar ginela. 2006ko maiatzean egin zuen Azarok hausnarketa estrategikoa, eta horren ondorioz definitu zen Esperanza 2013 proiektua: hor dugu hurrengo zazpi urteetarako lan plangintza.

En un principio estábamos a la espera de que los promotores vinieran a nosotros; también dependía de nuestros recursos, éramos menos y apoyábamos aquellos proyectos que se nos acercaban. Pero, posteriormente vimos que, sobre todo si se pretendía promover la creación de empresas innovadoras, con cierto contenido tecnológico, además del apoyo de la infraestructura de la escuela, deberíamos ser mucho más proactivos. Azaro llevó a cabo un proceso de reflexión estratégica en mayo de 2006, y ahí definió el proyecto Esperanza 2013: ahí tenemos nuestro plan de trabajo para los próximos siete años.

## **5. Zeintzuk dira Esperanza 2013 proiektuaren ardatzak?**

### **¿Cuáles son los ejes del proyecto Esperanza 2013?**

Alde batetik, sustapen kultura landu egin behar dela. Hau epe luzeko lan bat da, eta etorkizunean eskualdean enpresa berriak sortuko dituzten edo eta enpresen barruan berrikuntza sustatuko duten pertsonak egotea nahi badugu, hori askoz arinagotik lantzen joan behar da. Horregatik gabilta DBHko ikastetxeekin lanean, Lea Artibai Ikastetxeagaz beragaz dihardugun bezala. Inguruagaz, eskualdeagaz inplikazioa edukiko duten pertsonak izan daitezten; bertan bizi nahi duenak barneratuta eduki dezaten bertan beharra egiteko bere enpresa proiektu propioa ere aurrera atera dezakeela, berak ere aportatu dezakeela. Enpresekin eurekin ere bai, aldaketarako animatzen, lehiakortasuna hobetzeko berrikuntza ildo jorratu dezaten...Eta orokorrean, eskualdeari begira ere sustapen eta berrikuntza kultura hori zabaldu nahian gabilta, adibidez Hazi aldizkariaren bidez.

Por un lado constatamos que se ha de trabajar la cultura emprendedora. Se trata de un trabajo a largo plazo. Por lo tanto, si pretendemos que en un futuro se cuente con personas que creen nuevas empresas, o que promuevan innovación dentro de las ya existentes, es una cuestión que se tiene que labrar desde mucho antes. Es por ello que hemos comenzado a trabajar con los centros de ESO, tal como trabajamos previamente con Lea Artibai Ikastetxea. Para que sean personas implicadas con el entorno, con la comarca; que aquellos que quieran vivir aquí puedan plantear la posibilidad de llevar adelante un proyecto empresarial propio, que también pueden aportar al desarrollo comarcal. Es un trabajo de concienciación y animación que también realizamos con las empresas, animándolas para el cambio, para la innovación, indispensable para la mejora de la competitividad... Y, en general, también pretendemos difundir esa cultura de emprendizaje e innovación entre la población en general, por ejemplo a través de la publicación Hazi.

## **6. Sustapen kultura hedatzeagaz batera, ze beste lan ardatz daroazue?**

### **Junto con la difusión de la cultura emprendedora, ¿qué otros ejes de trabajo lleváis adelante?**

Lehen aitatu dugun moduan, enpresa berritzaileak sor daitezten Azarok jarrera proaktiboa izan behar du, baina hori zertan gauzatzen da? Ba, hasteko, talde multidiziplinar bat eratu dugu Azaroko eta Lea Artibai Ikastetxeko jendeagaz, lan ildo amankomun bategaz: geu hasi gara ideiak topatzen. Lerro teknologiko batzuk adostu ditugu, pentsatuz interesgarriak izan daitezkeela eskualderako, eta horren arabera, sastrakak kentzen joan, eta bilatu enpresa edo jarduera

posibleak izan daitezkeenak. Ahalegintzen gara azterketa horien emaitzak ahalik eta arinen enpresen zerbitzura ipintzen; era horretara eurak ere sastrakak kentzen errazago laguntzen digute. Izan ere, mundu zabal-zabal batean sartzen gara eta ez da erraza izaten konkreziora iristea. Enpresek eurek laguntzen digute horretan. Beraz, ideia bilaketan, aurre-bideragarritasun planak egiten, eta abar, dihardugu. Horregaz ondo lotuta, oinarri teknologikoa duten enpresak sendotu nahi dugunez, Lea Artibai Ikastetxeak berak ere maila etengabe igotzen joan behar duela ikusi dugu. Azken finean, enpresen aurretik doan erakundea izan behar du. Telekomunikazioan, elikaduran, materialetan adituak dira; ba, hori eta beti apur bat gehiago izan behar dira. Zentzu horretan, Ikastetxean doktorautzen eta masterren aldeko apostua egin da; barne ikerketa proiektuak ere gehituz, nazioarteko publikazioak bezala; horiek dira-eta, oinarri teknologikoaren adierazle nagusiak. Formakuntza teknologiko sendo horren baitan, gainera, uste dugu zer edo zelako kuñak sartu behar direla, ingeniari-sustatzaileak sortarazteko, ez ingeniari hutsak.

Como hemos mencionado anteriormente, la fundación Azaro debe tener una actitud proactiva para la creación de empresas innovadoras, pero ¿esto cómo se concreta? Para empezar, hemos puesto en marcha un grupo de trabajo multidisciplinar con personal de Azaro y de Lea Artibai Ikastetxea, con un objetivo en común: hemos comenzado nosotros a buscar ideas. Hemos consensuado unas áreas de interés tecnológico, con la idea de que pueden ser interesantes para la comarca; y así, vamos "limpiando la maleza" y buscando posibles actividades y nuevas oportunidades de negocio. Intentamos poner en disposición de las empresas los resultados de nuestras búsquedas en el menor plazo de tiempo posible; de esa manera, ellos también nos ayudan a despejar ideas y buscar las realmente interesantes y factibles. Y es que nos sumergimos en un mundo muy muy amplio, y no resulta fácil llegar a la concreción. Son las propias empresas las que nos ayudan en eso. Y así, trabajamos en la búsqueda de ideas, haciendo planes de pre-viabilidad... Junto a todo ello, y como pretendemos fortalecer y aumentar el número de empresas de base tecnológica, apreciamos que Lea Artibai Ikastetxea debe ir mejorando constantemente su nivel de preparación. Al fin y al cabo, debe ser una organización que vaya por delante de las empresas. Son expertos en telecomunicación, en alimentación, en materiales; pues bien, deben seguir siéndolo aún algo más, constantemente. En ese sentido, se ha apostado en la escuela por los programas de posgrado y doctorados; se han aumentado los proyectos de investigación propios, así como las publicaciones internacionales, pues son los mejores indicadores de la base tecnológica. Además, en el seno de dicha formación tecnológica potente, creemos que se han de ir implantando cuñas cara a la generación de ingenieros-emprendedores, que no sean sólo ingenieros técnicos.

## **7. Sustatzaileen formakuntza da hirugarren lan ildo, ezta?**

### **¿Un tercer eje sería la formación de emprendedores?**

Bai, alde batetik formazio orokorra –zelan egin bideragarritasun plana-, baina aparte apostu bat egiten dugu sustatzaile eskolaren alde (INEM erakundeak finantziazioan lagunduta). Urtebeteko programa, non ekintzaileek gune egokia duten enpresa sustapen eta kudeaketan beharrezkoak diren ezagutzetan sakontzeko euren enpresa ideia garatzen diharduten bitartean. Azaro Fundazioa eta Lea Artibai Ikastetxeko ezagutza, bitartekaritza, aholkularitza, azpiegitura eta ekipamenduak jartzen dira ekin-tzaile taldearen zerbitzura.

Sí, por un lado está la formación general —cómo realizar el plan de viabilidad— pero por otro lado, apostamos por la escuela de emprendedores (financiado en parte importante por el INEM). Se trata de un programa de un año, donde los emprendedores cuentan con un entorno apropiado para profundizar en los conocimientos necesarios para la promoción y gestión empresarial, mientras desarrollan su propio proyecto de empresa. La Fundación Azaro y Lea Artibai Ikastetxea ponen sus conocimientos, su mediación, consejo, infraestructura y equipamiento al servicio del equipo de personas emprendedoras.

## **8. Sustatzaileak formatzeaz gain, ze beste zerbitzu ematen die Azarok?**

### **Además de formar emprendedores ¿qué otros servicios ofrece Azaro?**

Beti eman diogu zerbitzu integrala sustatzaileari, datorrenetik ez eze, pentsatuz etorri daitekeenaz ere. Zerbitzu osoa ematen diegu: lokala, formakuntza, diru laguntzak lortzeko laguntza, jarraipena...

Siempre hemos ofrecido un servicio integral al emprendedor, no sólo desde que se nos acerca, sino pensando en lo que puede venir. Dentro de nuestros servicios se incluyen: un local, formación, apoyo para la gestión de ayudas económicas, tutorización y seguimiento...

## **9. Zelan kuantifikatu dituzue Esperanza 2013 proiektuaren helburuak?**

### **¿Cómo habéis cuantificado los objetivos del proyecto Esperanza 2013?**

Zazpi urtean 90 enpresa berri finkatzea, 500 lanpostu; %75 zerbitzuetakoak, %25 industrialak, %25 gizarte ekonomiakoak (kooperatibak), %60 berritzaileak, lanpostuen erdia emakumeena... Irizten zaigu oso anbiziotsu gabiltzala, ez hainbeste zenbaki aldetik, ez bada eze kualitate aldetik; %60 berritzaile hori ez da izango erronka makala. Urtero sortzen dira 20-25 enpresa Azaro eta Garapen Agentziaren inguruan eskualdean, baina ez diote erantzuten proiektu honen misioak markatzen duen izaera berritzaileari.

Queremos crear 90 nuevas empresas en siete años, con 500 puestos de trabajo; un 75% de servicios, 25% de empresas industriales, 25% de economía social (cooperativas), 60% innovadoras, un 50% de puestos de trabajo ocupados por mujeres... Creemos que estamos siendo bastante ambiciosos, no tanto desde el punto de vista cuantitativo, sino desde el cualitativo: ese 60% de empresas innovadoras será un gran reto. Cada año surgen 20-25 empresas en la comarca alrededor de Azaro y la Agencia de Desarrollo, pero no responden a ese carácter innovador que marca nuestra misión.



**10. Garai eroso eta oparoan bizi gara, zenbat eta gazteago are eta erosoago ohituta daude; testuinguru horretan ekintzaitasuna suspertzea are eta gaitzagoa da. Zailtasunak igarri dituzue?**

**Vivimos en una época de abundancia y comodidad, cuanto más jóvenes, más acostumbrados han vivido a dicha comodidad; en ese contexto es aún más difícil promover el emprendizaje. ¿Habéis notado esas dificultades?**

Zailtasunak handiak dira, eta adibidez, 2007an, asko igarri da. Alde batetik ia-ia ez dago langabeziarik, eta bestetik, txip-a beste leku baten dago. Gaur egun gazteek ez dute arriskurik ezagutu lanposturik topatuko duten ala ez. Adibidez, ideia lehiaketa antolatuta edo ekintza orokorrak eginda, tantaka datoz sustatzaileak. Orduan, nondik datoz jarduera berrietarako ideak eta proiektuak? Ba, enpresetatik bertatik. Hor landu behar da grina hori. Guk, gainera, eskualde honetan premia handia daukagu enpresen barne-berrikuntzan. Bertoko enpresak txarto ez daude, baina egoera apur bat estalia da, estalki fin-finagaz batuta... Jarduera berriak behar-beharrezkoak dira bertoko enpresentzako aurrera egin ahal izateko. Eta, horrela, aurten, enpresa berrien proiektuen kopurua konpentsatuko dugu enpresen barne-ekintzaitasunagatik: lau edo bost proiektu ditugu, enpresetatik bertatik sortuak, jarduera berriak egiteko. Eta hortik jarraitu beharra dago.

Las dificultades son importantes, y en 2007, por ejemplo, lo hemos notado mucho. Por un lado, casi no existe el paro, y por otro, el chip está por otras labores. Los jóvenes hoy en día no han conocido ese riesgo de no encontrar trabajo. Por ejemplo, organizamos el concurso de ideas, o charlas y encuentros generales, y los emprendedores acuden a cuentagotas. Y por ello nos preguntamos, ¿de dónde surgen las ideas y los proyectos para nuevas actividades empresariales? Desde las mismas empresas. Es ahí donde hay que cultivar esa impronta. Además, en esta comarca tenemos una gran necesidad de innovación interna en las empresas. Nuestras empresas no están en mala situación, pero es una situación un tanto encubierta, envuelta en un manto muy-muy fino... Las nuevas actividades son totalmente necesarias para que las empresas de la comarca puedan seguir adelante. Y resulta que, este año, compensaremos la escasez de nuevos proyectos con proyectos de intra-emprendizaje: contamos con cuatro o cinco proyectos, surgidos de las mismas empresas, para crear nuevas actividades. Y por ahí debemos seguir.









AZARO FUNDAZIOA  
2008ko martxoan  
[www.azarofundazioa.com](http://www.azarofundazioa.com)







**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA  
CONSEJERIA DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES Y EDUCACION